



**SOZIOLINGUISTIKA  
KLUSTERRA**

# **BERGARAKO NERABEEN AHOZKO JARDUNEAN EUSKARA BULTZATZEKO EGITASMOA**

**Diagnostiko fasea:**

**Bergarako nerabeen hizkuntza-erabilera formala eta informala**

**Soziolinguistika Klusterra Elkartea**  
Martin Ugalde Kultur Parkea  
20140 ANDOAIN  
[www.soziolinguistika.org](http://www.soziolinguistika.org)  
2013ko urria



## AURKIBIDEA

0.	SARRERA	3
1.	BERGARAKO DATU SOZIOLINGUISTIKOAK	4
2.	IKERKETA-DISEINUA ETA PROZESUA	7
2.1.	Ikergaiaren definizioa .....	7
2.2.	Hipotesien formulazioa .....	9
2.3.	Metodologia .....	9
2.4.	Metodologia kuantitatiboa.....	10
2.5.	Metodologia kualitatiboa .....	13
3.	EMAITZA KUANTITATIBOAK ETA ONDORIOAK	15
3.1.	Nerabeen ezaugarriak: deskribapena.....	15
3.2.	Gurasoengandik nerabeek jasotako hizkuntza.....	15
3.3.	Nerabeen hizkuntza-gaitasun erlatiboa .....	16
3.4.	Nerabeen iritziak hizkuntzekiko .....	17
3.5.	Euskara eta gaztelaniarekiko bizipena gaitasun erlatiboaren arabera.....	17
3.6.	Nerabeen parte hartzea eskolaz kanpoko munduan .....	18
3.7.	Nerabeen hizkuntza-erabilera: deskribapena .....	20
3.8.	Lekuetako hizkuntza-erabilera .....	23
3.9.	Hizkuntza-erabilera pertsonekin .....	24
3.10.	Hizkuntza-erabilera elikabideetan.....	24
3.11.	Hizkuntza-erabilera hizketa-egintzetan.....	25
3.12.	Hizkuntza-erabilera testu-generoetan .....	26
3.13.	Erabilera: aldagai independente eta menpekoen harremana .....	27
3.14.	Adina .....	27
3.15.	Sexua .....	32
3.16.	Etxeko hizkuntza.....	36
3.17.	Hizkuntza-gaitasun erlatiboa.....	40
4.	EMAITZA KUALITATIBOAK: ETA HELDUEK ZER DIOTE?	46
4.1.	Gaztelania egiteko adina aurreratu egin da .....	46
4.2.	Gaztelania, mutilek gehiago .....	46
4.3.	Gaztelania irakasleari egiteko ohitura ugaritu .....	46
4.4.	Irakasle eleanitzaren funtzioa .....	47
4.5.	Kode aldaketaren gainean kontzientziarik ez.....	47
4.6.	Lidergo euskaldunaren bila .....	48
4.7.	Nerabeen iritziak gaztelania eta euskararekiko .....	48
4.8.	Nerabeen hizkuntza-gaitasunak gaztelaniaz eta euskaraz .....	49
4.9.	Euskalkien balioa Bergaran.....	50
4.10.	Irakasle eta ikastetxeek behar dutena .....	50
5.	IRAKURKETA BATERATUA ETA ONDORIOAK	51
5.1.	Adinaren eragina hizkuntzaren erabileran (1. hipotesia).....	51
5.2.	Sexuaren eragina hizkuntza erabileran (2. hipotesia) .....	51
5.3.	Etxeko hizkuntza eta gaitasun erlatiboaren eragina hizkuntza erabileran (3. eta 4. hipotesiak) ...	51
5.4.	Testuinguru formal eta informalen eragina hizkuntza erabileran (5. hipotesia).....	52
5.5.	Helburu komunikatiboaren eragina hizkuntza erabileran (6. hipotesia).....	53
5.6.	Gaztelania irakasleei egiteko ohitura .....	53
5.7.	Nerabeen iritziak gaztelania eta euskararekiko .....	54
6.	ESKU HARTZEARI BEGIRAKO GOGOETA ETA PROPOSAMENAK	55
6.1.	Zein adinekoekin esku hartu?.....	55
6.2.	Zertan eragin? .....	55
6.3.	Balizko ekintza-ikerketa eremuak: ikasgela, kirola eta gazte-lekua .....	56
7.	ERANSKINAK	61



## 0. SARRERA

---

Nerabeen esparru formal eta informaletako hizkuntza-erabilera aztertzeko egindako ikerketaren lehen emaitza da honakoa. Bergarako udalaren eskariz 2013ko urtarriletik ekainera bitartean Soziolinguistika Klusterra Elkarteak (SLK hemendik aurrera) gauzatua, jarraipena izan asmo duen laborategiaren lehen abiapuntua, hain zuzen.

2011ko udazkenean Mintzola Fundazioaren eta Bergarako euskara zerbitzuaren artean izandako lehen harremanetik hona bideratu diren lanetatik eratorritako egitasmoa da. Bide horretan gauzatutako bi lan dira aipagarriak: bata da Bergarako udalak lehendik gauzatutako ikerketa-lan eta programen txosten eta datuen gainean egindako irakurketa-analisia; bestea, berriz, lau pabost urteetarako aurreikuspena duen ekintza-ikerketa egitasmo baten proposamena<sup>1</sup>.

Azken proposamenaren irakurketatik (Andoain, 2013 txostena) adostu da Bergarako euskara zerbitzuarekin eta ikerketan parte hartuko dutenekin (ikastetxeetako ordezkariak, Musika Eskolako zuzendaria, Nerabe-lekuko begiraleak) 2013ko ikerketak zeri erreparatuko dion.

2013ko helburua honakoa izatea adostu zen: Bergarako nerabeen hizkuntza-erabilera formal eta informala egoera, hizketa-egintza eta testu generoetan zein den jakiteko datu-bilketa kuantitatibo eta kualitatiboa egitea. Egiteko horri erantzunez osatu da ondorengo txostena, atal hauetan banatua:

- (1) **Bergarako datu soziolinguistikoak:** Bergarako euskara zerbitzuak emandako informazioa<sup>2</sup> kontuan hartuz, Bergarako errealitate soziolinguistikoaren laburpena egingo da.
- (2) **Ikerketaren diseinua eta prozesua:** ikerketa-gaia, galderak, hipotesiak eta datu kuantitatibo eta kualitatiboen bilketarako erabilitako metodologiaren berri emango da.
- (3) **Emaitza kuantitatiboak eta ondorioak:** datu kuantitatibo . Lehenik, maila deskriptiboan aurkeztuko dira emaitzak. Jarraian ondorioak aurkeztuko dira, aldagai independente eta menpekoen arteko harremanari erreparatuz.
- (4) **Emaitza kualitatiboak: eta helduek zer diote?** Ikerketari esker jasotako datu kualitatiboak atal honetan aurkeztuko dira; nerabeek aitortutako hizkuntza-erabilera zenbait helduk (irakasle eta begiraleek) nola hautematen duen aurkeztuko da, besteak beste.
- (5) **Irakurketa bateratua eta ondorioak:** hipotesiak berrekarriz ikerketaren sintesiaren berri emango da.
- (6) **Aurreikuspenak:** etorkizuneko ekintza-ikerketa eta egitasmo posibleen proposamen laburra zerrendatuko da.
- (7) **Eranskinak:** datu kuantitatibo eta kualitatiboak jasotzeko baliatu diren gidioak eta galdetegiak, datu kuantitatiboen ustiaketaren emaitza diren taulak eta datu kualitatiboen emaitza diren transkripzioak.

---

<sup>1</sup> Aipatu lanok aurkeztu dira Bergarako euskara zerbitzuan, honako data duten dokumentuetan: *Villabona, 2012.11.10; Villabona, 2012.12.10; Andoain, 2013.01.14*. 2012ko abendura bitartean Mintzola Fundazioaren izenean eta 2013tik aurrera, Soziolinguistika Klusterraren izenean, bertan aipatzen diren arrazoiak medio.

<sup>2</sup>“Euskararen egoera Bergaran 2012. Adierazle nagusiak eta egoera ulertzeko gakoak” txostena.



## 1. BERGARAKO DATU SOZIOLINGUISTIKOAK

Bergarako udalaren webguneak dioen moduan, Euskal Autonomia Erkidegoko erdialdean, Gipuzkoako hego-mendebaldean, eta Debagoieneko eskualdean dagoen herria da Bergara; Debagoieneko mankomunitatea osatzen duena Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate-Mondragon, Elgeta, Eskoriatza, Leintz-Gatzaga eta Oñatirekin batera.

INE-ren (Instituto Nacional de Estadística) arabera, 2012ko urtarrileko Biztanleriaren Erroldan, 14.708 biztanle izan ditu Bergarak, adinaren arabera, honela banatuta:

1. taula: Bergarako biztanle-kopurua, adinaren arabera

	Guztira	0-4	5-9	10-14	15-19	20-24	25-29	30-34	35-39	40-44	45-49	50-54
Bergara	14708	718	641	675	641	614	813	1012	1105	1109	1224	1146

	55-59	60-64	65-69	70-74	75-79	80-84	85-89	90-94	95-99	100 eta +
Bergara	975	898	835	584	723	586	281	97	25	6

Iturria: INE, udal errolda, 2012 (urtarrilak 1)

Bergarako errealitate soziolinguistikoaren berri izateko *Euskararen egoera Bergaran 2012. Adierazle nagusiak eta egoera ulertzeko gakoak*<sup>3</sup> txostenaren datuok aintzat hartu dira. Gazteen hizkuntza-erabileraren nondik norako nagusiak zertan diren zehazten da txosten honetan.


Azken 20 urteetan Bergarako Udalak egindako erabilera-neurketetako emaitzek diotenaren arabera, 1986az geroztik erabilera orokorrak goranzko joera izan du urte batzuetan, baina azken 2-3 urteetan jaitsiera txikia gertatu da. Haurrak dira gehien darabiltenak, eta ondoren datoz gazteak, helduak eta adinekoak.

Zehazki, 2001etik 2011ra haurretan ez dago aldaketarik, nahiz eta 2011ko datuetan jaitsiera txikia gertatu den; gazteetan beherakada txiki bat izan da hamarkada honetan; helduetan gorakada handitxoagoa eta adinekoetan, berriz, jaitsiera. Halaber, haurretan ez bezala, gazte, heldu eta adinekoetan %50etik beherako erabilera da Bergarakoa. Bestalde, 2006-2010eko datuetatik 2011ra jaitsiera txiki bat nabaritzen da adin guztietan. Horixe da, hain zuzen ere, gutxi gorabehera, kaleko erabilerak erakusten diguna.

<sup>3</sup>Bergarako euskara zerbitzuak egindako txostena da.



1. grafikoa. Euskararen erabileraren bilakaera adin-tarteka, urte-multzoka. (%)



Iturria: Euskararen egoera Bergaran 2012. Adierazle nagusiak eta egoera ulertzeko gakoak

“Gazteena asko hazi zen urte batzuetan baina azken urteetan zertxobait jaitsi” egin dela jakin dugu; adinaren eta sexuaren aldagaiei erreparatuz, gainera, “umeetan eta bereziki gazteetan aldea handia da: neskek askoz gehiago erabiltzen dute. Mutil gazteen erabilera asko jaitsi da azken urteetan: helduek baino emaitza apalagoak (...); mutil gazteen erabilera baxua da, hain zuzen ere, neurketak urte gehienetan azaltzen duen daturik kezagarrienetako bat. Azkeneko hiru urteetan, gainera, mutilen erabilera hori helduena bera baino baxuagoa izan da. Horixe da, hain zuzen ere, kaleko erabileraren neurketek agertzen duten ahulgune nagusia”. Hona ateratako datuak:

2. taula. Kaleko erabilera haur eta gazteetan, sexuaren arabera, urtez urte (%)

	0-14		15-24	
	Emakm.	Gizon.	Emakm.	Gizon.
1997	58	52	58	45
2001	93	54	58	34
2002	61	46	54	22
2003	65	52	67	41
2004	71	61	63	36
2005	70	54	60	32
2006	71	70	53	48
2007	61	54	55	48
2008	68	55	71	37
2009	65,7	50	46,8	19,7
2010	63,3	60,5	54	27,2
2011	61,5	53,8	55,4	24,4

Iturria: Euskararen egoera Bergaran 2012. Adierazle nagusiak eta egoera ulertzeko gakoak

Aipatu datuen bilakaeraren arrazoiak bilatu dira, eta gakorik garrantzizkoenak topatu dira gaitasun erlatiboan, lehen hizkuntzaren eta etxeko hizkuntzaren izaeran. Txostenak dioen moduan, “Bergararren euskararen gaitasuna murriztu egin da eta baita lehen hizkuntza euskara dutenen portzentajea eta



etxean euskara erabiltzen dutenena ere (...). 2001etik 2011ra haurretan ez dago aldaketarik, gazteetan gorakada txiki bat izan da, helduetan gorakada handitxoagoa eta zaharretan, berriz, jaitsiera”.

Bestalde, “DBH-2ko (13-14 urteko) ikasleen herenak inguru lagunartean gaztelaniaz errazago egiten du euskaraz baino, eta beste heren batek bietan antzera. Egoera hori, gainera, ez da aldatu, behintzat, azkeneko 10 urteetan. Hor dago, beraz, gazteetan euskararen erabilerak gora ez egitearen arrazoi nagusietako bat”. Lehen hizkuntza euskara dutenen artean %40 pasa da bietan antzera edo erdaraz hobeto moldatzen dena.

Horretarako arrazoen bila Bergarako udalak honakoa aipatzen du “umeari lehen hiru urteetan euskaraz egin zioten gurasoetako %15ek beti edo gehienetan gaztelaniaz egiten diote 13-14 urte egin dituenarako”. Horretaz gain diote “euren artean beti euskaraz egiten duten gurasoen seme-alaba guztiek ere ez dutela lagunartean euskaraz errazago egiten (...)”, izan ere, “Gurasoek euren artean beti edo nagusiki euskaraz egiten dutenean ere (kasu horietan seme-alabei ere beti edo gehienetan euskaraz egiten diete), %60 inguru da lagunartean euskaraz errazago moldatzen dena eta beste %40 inguru bietan berdin edo gaztelaniaz errazago”.

Datuok kontuan hartu beharrekoak izango dira ikerketa honetan ateratako emaitzekin alderatu eta informazio esanguratsurik ba ote dagoen bilatzeko. Errealitate horren berri emanik, gatozen ikerketa-galderak eta -eremua zein izango diren azaltzera.



## 2. IKERKETA-DISEINUA ETA PROZESUA

---

2013ko ikerketaren nondik norakoak aurkeztuko ditugu atal honetan. Lehenik, ikergaia definituko da; ondoren, hipotesiak zehaztuko dira, eta azkenik, ikerketaren metodologiari buruzko azalpenak emango dira: ikerketa-teknika, tresna eta egiteko moduak aurkeztuko dira.

### 2.1. IKERGAIAREN DEFINIZIOA

---

Ikerketa honek beharrian sozial bati, kezka bati erantzun nahi dio: Bergarako nerabeen (12-17 urte) hizkuntza-erabilera hainbat testuinguru formal eta informaletan aztertu nahi da, Bergarako kale-erabileraren neurketa-datuek baitiote 2006-2010eko erabileratik 2011ra jaitsiera txiki bat gertatu dela adin guztietan.

Hasierako galdera orokorrak honakoak izan dira<sup>4</sup>:

1. **Hizkuntza-moldeak:** nerabeen hizkuntzaren (euskara) erabilera-motak (diskurtso-moldeak) zein dira? Zer egiten dute? Norekin? Noiz? Zertarako? Nola hitz egiten dute? Galdera horiek erantzun nahi izan dira ikerketaren bidez.
2. **Hizkuntza-ekosistema:** nerabeen hizkuntza (euskara) erabilera eta input moten ekosistema: nondik jasotzen dute? Zer entzuten dute? Zer kontsumitzen dute? Zein ekosistema linguistikotan bizi dira?

Bergarako Udalak aurkeztu eta aztertutako datuetan nabarmen ikusten da euskararen erabileraren eta gaitasunaren bilakaerek izan dezaketela lotura zuzenik. Ildo horretatik “Euskararen egoera Bergaran 2012. Adierazle nagusiak eta egoera ulertzeko gakoak” txostenean aipatu diren honako galderaren inguruko jakin-minarekin bat egiten dugu geuk ere<sup>5</sup>:

1. **“Haur eta nerabe guztiak euskaldunak badira, zergatik ez da adin-tarte horretan erabilera handiagoa?”**

Nerabe guztiek D ereduan ikasten dute, beraz, euskaraz hitz egiteko eta idazteko gai direla pentsa genezake; testuinguru formal eta informaletan nahiz helburu komunikatibo askotarikoetan. Eta bide beretik doan hurrengo galdera: D ereduko haur zein nerabeak ditugunez aztergai; euskaraz euren mailan badakitela izan da gure hipotesia eta hala ere, zergatik egiten dute gutxiago nerabeek haurrek baino? (pentsatuz, nerabeek euskara hobeto menderatzeko arrazoiak dituztela hizkuntza jabekuntza prozesuei erreparatuta).

Bergarako udalak eginak ditu hipotesiak:

- a) **“Euskararen familia-transmisioa murriztuaz joaten da adinean gora egin ahala. Datuek hala diote: jaio eta lehen hiru urteetan umeari euskaraz egin zioten gurasoetako %15ek beti edo gehienetan gaztelaniaz egiten diote 13-14 urte egin ditueneko”.** Ikerketa honen bidez ezin dugu hipotesi hau baieztatu edo ezeztatu.

---

<sup>4</sup>Helburuak eta egitekoak zein diren sakonago ikusi nahi bada, ikus *Andoain. 2013.01.14* datadun dokumentua.

<sup>5</sup>Letra etzanean jarria da hitzez hitz jasotakoa; gainerakoa, geure ekarpena da.



b) **Adinean gora egin ahala, familiaren eragina murriztuaz doa eta gaztelaniak presentzia handiagoa duen guneena handitzen.** Nerabeentzat euskarazko eskaintza (ikus-entzunezkoena, eskolaz kanpoko jarduerena, teknologia berriena, musikarena...) umeentzako baina txikiagoa da eta nerabeek beste hizkuntza batzuetako eskaintzara jotzen dute, batez ere gaztelaniazkoa baina baita ingelesezkoa ere". Ikerketa honen bidez hipotesi honetako hainbat alderdi erantzun ahal izango ditugu.

## 2. Neska zein mutil guztiek euskaraz badakite, zergatik egiten dute askoz gutxiago mutilek?

Begarako udalak eginak ditu hipotesiak:

a) **"Nesken euskararen gaitasun erlatiboa hobea da. Logikoa da: gehiago erabiltzen badute, errazago egingo dute.** Eta errazago egiten badute, gehiago erabiliko dute". Ikerketa honen bidez hipotesi honetako hainbat alderdi erantzun ahal izango ditugu.

3. **"Eskolaz kanpoko mundua, neskena euskaldunagoa da: alde batetik, euskaraz diren ekintzetan (dantza, musika, instrumentua...) neskek presentzia handiagoa dute eta, bestetik, aukera librea dutenean (irratia entzutean, liburu edo aldizkariak irakurtzean...) neskek mutilek baino sarriago aukeratzen dute euskarazkoa".**

Ikerketa honen bidez hipotesi honetako hainbat alderdi erantzun ahal izango ditugu.

Eta bide horretan, honakoak erantsi nahi ditugu aurretiaz zehaztutako galdera orokorren harira lotura dutenez:

**Zein da Bergarako nerabeen euskara erabilera eta ekosistema? Noiz, non, norekin, zertarako darabilte (hitx egin) euskara/gaztelania/beste hizkuntza bat?**

1. **Erabilera eta lekuak.** Nerabeek leku batzuetan euskaraz gehiago egiten dute beste batzuetan baino? Zein da leku bakoitzeko erabilera? Zeintzuk dira euskararen erabilera errazten duten eremuak eta zeintzuk zailtzen dutenak? Zein ezaugarri dute batzuek eta besteek? Badago alderik adinaren arabera toki bakoitzeko erabileran? Eta gaitasun erlatiboaren arabera?
2. **Erabilera eta pertsonak.** Zein da bakoitzarekiko erabilera? Badago alderik bi norabideen artean? Zeintzuk dira euskaraz egitea bultzatzen dutenak eta zeintzuk eragozten dutenak? Zein ezaugarri dute? Badago alderik adinaren arabera eta gaitasun erlatiboaren arabera?
3. **Erabilera eta elikabideak.** Pentsatzen dugu nerabeek gaztelaniazko elikabideak (hedabideak, liburuak, musika...) erabiltzen dituztela nagusiki. Hala da? Badago alderik adinaren arabera? Etxeko hizkuntzaren arabera? Eta sexuaren arabera?
4. **Erabilera eta moldeak.** Pentsatzen dugu nerabeek hizkera molde batzuetan gaztelaniara jotzen dutela. Zein da hizkera-molde bakoitzeko erabilera? Zeren ondorio izan liteke hori? Zein ezaugarri du bakoitzak?

**Ondorioz:**





**Ikergaia da Bergarako 12-17 urte bitarteko nerabeen (DBH 1, DBH 3 eta Batxilergo 1) hizkuntza-erabilera testuinguru formal eta informaletan. Hizkuntza-erabilera hainbat egoeratan (lekutan, pertsonekin eta elikabidetan), hainbat hizketa-egintzetan eta testu generotan.**

Hizkuntza-erabilera hainbat egoera, hizketa-egintza eta testu generotan zenbatekoa den deskribatu da Bergarako nerabeen aitorenpetik abiatuta, eta nerabeekin harreman estua eta zuzena duten hainbat helduren (irakasle eta begiraleak) pertzepzioa jasota.

## 2.2. HIPOTESIEN FORMULAZIOA

---

Gertakariak deskribapenez gain, horietan eragiten duten aldagai independenteak eta menpekoak definitu dira, eta horien arteko harremana estatistikoki aztertu da, aldagai independente eta menpekoen arteko harreman esanguratsuak azalerazi nahian.

Aztergai den fenomenoari buruz ikerlariak eta Bergako Udaleko euskara zerbitzukoek zituzten ikuspegiak, aurreiritziak eta usteak kontuan hartuta hipotesiak formulatu dira. Ikerketako aldagaien artean egon daitezkeen harremanei buruzko hipotesiak proposatu dira. Hona hemen ikerketa honetan baieztatu edo ezeztatu beharreko hipotesiak:

1. Adinak Bergarako nerabeen hizkuntza-erabilera baldintzatzen du.
2. Sexuak Bergarako nerabeen hizkuntza-erabilera baldintzatzen du.
3. Etxeko hizkuntzak Bergarako nerabeen hizkuntza-erabilera baldintzatzen du.
4. Gaitasun erlatiboak Bergarako nerabeen hizkuntza-erabilera baldintzatzen du.
5. Testuinguruaren formaltasun mailak nerabeen hizkuntza-erabilera baldintzatzen du.
6. Helburu komunikatiboak nerabeen hizkuntza-erabilera baldintzatzen du.

## 2.3. METODOLOGIA

---

Ikerketaren metodologiari dagokionez, metodologia kuantitatiboa eta kualitatiboa erabili da.

Metodologia kuantitatiboaren bidez nerabeen adina, sexua, ama-hizkuntza, gaitasun erlatiboa, hizkuntza-erabilera aitortua eta hizkuntzarekiko iritzien inguruko informazioa jaso da, besteak beste. Metodologia kualitatiboaren bitartez informazio osagarria jaso da irakasle, eskoletako begirale (eremu informaletan zaintzaile diren begiraleak) eta gazte-lekuko begiraleengandik.

Laburtuz, honakoa izan da datuen bilketa-mota eta kopurua:



## 3. taula. Datu-bilketa motak eta kopurua

SUBJEKTUAK	DATU BILKETA		KOPURUA OROTARA
	KUANTITATIBOA	KUALITATIBOA	
DBH 1 ikasleak	Inkesta		227 ikasle <sup>6</sup>
DBH 3 ikasleak	Inkesta		
Batxilergoa1 ikas.	Inkesta		
DBH 1 irakasleak		Elkarrizketa grabatua	10 irakasle
DBH 3 irakasleak		Elkarrizketa grabatua	
Batxilergoa 1 irakasleak		Elkarrizketa grabatua	
Lanbide Heziketa 1 irakasleak		Elkarrizketa grabatua	
Musika Eskolako zuzendaria		Elkarrizketa grabatua	
DBH-Batxilergoa kanpo ekintzetako begiraleak		Elkarrizketa grabatua	
GAZTE-LEKUA begiralea	Inkesta	Elkarrizketa eta behaketa (ekintza baten parte hartzea)	
GAZTE-LEKUA nerabeak		Bizipenen inguruko idatzia edo sorkuntza lana. Ekintzan parte hartzearen behaketa	10-15 nerabe

## 2.4. METODOLOGIA KUANTITATIBOA

Ondorengo koadroan ikus daiteke metodologia kuantitatiboko erabilitako hainbat datu:

**DATU TEKNIKOAK (LABURPENA):**

**Unibertsoa:** Bergarako 12 eta 17 urte bitarteko nerabe guztiek osatzen dute, **787** lagun 2012ko erroldako datuen arabera (INE, *Estadística del Padrón Continuo a 1 de enero de 2012*).

**Lagina:** 190 nerabe.

**Landa-lana:** 2013ko martxoan egin ziren galdetegiak. Galdetegi hauek euskaraz egin dira eta digitalizatzeko GoogleDrive formatua erabili zen.

**AKATS TARTEA** (erabat ausazkoak diren laginketei egozgarria): **±%6,3** lagin osoarentzat, %95,5eko konfiantza mailan eta  $p=q=%50,0$  denerako.

**IKERKETA TEKNIKA:** Bergarako nerabeei galdetegiak egin zaie.

**LAGINA:** honako maila hauetatik ikastetxe bakoitzeko gela bat hautatu da: DBH1, DBH3, Batxilergoa1 eta Lanbide Heziketako lehenengo maila eta landa lanean 227 inkesta jaso dira, horietatik galdetegi

<sup>6</sup> 227 ikasleren datuak jaso arren, Lanbide Heziketako hainbat lagin ez dira ikerketan kontuan hartu 12-17 urte arteko nerabeen datuetan bakarrik zentratzeagatik. 227 ikasleren datuak jaso dira. Lagin erreala 190ekoa izan da.



baliogabetuak kendu dira. Bestalde Lanbide Heziketan dagoen adin aniztasuna kontuan izanik, Lanbide Heziketako galdetegiak baliogabetu dira. Beraz, 190 galdetegi baliodunek osatu dute aztertu dugun lagina.

## LAGINKETA

Bergarako ikastetxeak aintzat hartuta maila bakoitzeko (DBH1, DBH3, Batxilergoa1 eta Lanbide Heziketa 1. maila) 25 ikasle hautatu dira zoriz.

**Galdetegia:** aztertu nahi izan diren gaien inguruan osatu da galdetegia. Bergarako euskara teknikariek galdetegi hori GoogleDrive formatuan digitalizatu dute, eta ondoren, Excelean jaso. Azkenik, datu horiek SPSS estatistika programara pasa dira datuen interpretazioa egin ahal izateko. Bergarako ikastetxe guztietako ikasleek ordu betean bete dute galdetegia.

**Tasak kalkulatzeko.** Erabilerari buruzko galderetan galdetegian nerabeei eskaini zaizkien erantzun posibleak lau izan dira, eta horietako bakoitzari honako balioa eman diogu batez besteko erabilera-tasak kalkulatu ahal izateko:

- Bete euskaraz = %100 euskaraz.
- Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago = %66 euskaraz.
- Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago = %33 euskaraz.
- Bete gaztelaniaz = %0 euskaraz.

Kalkulu horien emaitza **erabilera aitortuaren tasak** izango lirateke, hau da, nerabeek emandako erantzunak erabileraren isla zuzena izango balira, zenbat euskara erabiliko litzatekeen ehunekotan adierazita.

## ALDAGAI INDEPENDENTEAK ETA MENPEKOAK

Datu kuantitatiboetan aztertutako testuinguruetan (menpeko aldagaietan) erabilera datu orokorrak emateaz gain, aldagai independenteekin hainbat erlazio kalkulatu dira.

Hona hemen ikerketako aldagaiak:

**4.taula. Aldagai independente zein menpekoak**

Menpeko aldagaiak	Aldagai independenteak
<ul style="list-style-type: none"><li>• Lekua<ul style="list-style-type: none"><li>○ Ikastetxeko gelakoa</li><li>○ Ikastetxeko patioakoa</li><li>○ Etxekoa</li><li>○ Kultur jardueretakoa</li><li>○ Kirol entrenamenduetakoa</li><li>○ Kalekoa</li></ul></li><li>• Pertsonak<ul style="list-style-type: none"><li>○ Zure koadrilarekin</li><li>○ Kirol entrenatzailearekin</li><li>○ Gazte-lekuko begiralearekin</li><li>○ Beste koadrilakoekin</li></ul></li><li>• Elikabideak (sare sozialak + hedabideak)<ul style="list-style-type: none"><li>○ Sare sozialak<ul style="list-style-type: none"><li>▪ Tuenti</li><li>▪ Facebook</li><li>▪ Twitter</li><li>▪ WhatsApp</li></ul></li><li>○ Hedabideak<ul style="list-style-type: none"><li>▪ Telebista</li><li>▪ Irratia</li><li>▪ Egunkaria</li><li>▪ Hilabetekaria</li></ul></li></ul></li><li>• Hizketa-egintzak<ul style="list-style-type: none"><li>○ Ikastetxean azalpenak ematerakoan</li><li>○ Gazte-lekuan beste kideekin haserretzean</li><li>○ Gazte-lekuan beste kideekin gauzak kontatzean</li><li>○ Koadrilako kideekin gauzak kontatzerakoan</li><li>○ Koadrilako kideekin bromak egiterakoan</li></ul></li><li>• Testu-generoak<ul style="list-style-type: none"><li>○ Kantua</li><li>○ Piropoak</li><li>○ Txistekak</li><li>○ Txorradak</li><li>○ Biraoak</li></ul></li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Adina<ul style="list-style-type: none"><li>○ 12-13 urte</li><li>○ 14-15 urte</li><li>○ 16-17 urte</li></ul></li><li>• Sexua<ul style="list-style-type: none"><li>○ Emakumea</li><li>○ Gizona</li></ul></li><li>• Etxeko hizkuntza<ul style="list-style-type: none"><li>○ Euskara</li><li>○ Gaztelania</li><li>○ Euskara/gaztelania</li><li>○ Beste hizkuntza</li></ul></li><li>• Gaitasuna<ul style="list-style-type: none"><li>○ Euskaraz hobeto</li><li>○ Bietan berdin</li><li>○ Gaztelaniaz hobeto</li></ul></li></ul>

Datu kuantitatiboen ustiapenean hiru eragiketa aurkeztuko dira:

- a) Alde batetik, nerabeen ezaugarri nagusiak deskribatuko dira.
- b) Bestetik, datu orokorrak deskribatuko dira, bere baitan espazio, pertsona, elikabide, hizketa-egintza eta testu-generoak hartzen dituena. Modu honetan, erabilera bakoitzaren ikuspegi orokorra lortu eta indar-gune zein ahulguneak identifikatuko dira.
- c) Azkenik, aldagai independente eta menpekoen ustiaketa egingo da harreman esanguratsuak identifikatu nahian. Menpekoei dagokionez, propioki hautatu diren testuinguruak jorratuko ditugu bai egoerei (lekuei, pertsonai eta elikabideei), hizketa-egintzei zein testu generoei dagokionez. Menpeko aldagaiak hautatzeko gure aurre-pertzepzioan oinarritu gara, hau da, honako aurreiritzi nagusiarekin (5. hipotesia):



**Nerabeek euskara testuinguru formalekin gehiago lotzen dute informalekin baino.** Aurrez, dena dela, zehaztu dezagun zer ulertzen dugun testuinguru formal eta informalez:

**TESTUINGURU FORMALA:** ikastetxe barnean, ikasgelan zein handik kanpoko jarduera gidatuetan (kirol entrenamendua, kultur jarduera) hezitzaile baten gidaritza bidez eraikitzen den komunikazio testuingurua: begirale, irakasle eta nerabeen arteko hizkuntza-erabilera.

**TESTUINGURU INFORMALA:** hezitzailearen gidaritza txikiagoa edo gidaritzarik gabeko egoerak eraikitzen diren komunikazio testuingurua: ikastetxe barnean, patioan edo jangelan; ikastetxetik kanpo, kalean, lagun-artean, sare sozialetan, etab. Gidaritzarik gabeko nerabeen arteko hizkuntza-erabilera.

Esan bezala, menpeko aldagaiak aldagai independenteekin uztartuko dira eta euren artean dituzten erlazio esanguratsuak aipatuko, abiapuntu interesgarri izan baitaitezke etorkizuneko esku-hartzean jorratzeko.

## 2.5. METODOLOGIA KUALITATIBOA

Informazio kualitatiboak jasotzeko, berriz, partaide jakin bakoitzarentzat zuzendutako galdetegi-gidoiak egin dira (galderak eta marrazkia); zehazki, bost galdetegi-gidoi espezifiko honako bakoitzarentzako:

1. DBH eta Batxilergoko irakasleak.
2. Lanbide Heziketako irakasleak.
3. Ikastetxeetako begiraleak.
4. Musika Eskolako zuzendaria.
5. Gazte-lekuko begiraleak.

Aurrez aurreko elkarrizketa aurretik bidali zaio bakoitzari galdetegi-gidoia bertako edukien inguruan gogoetatzeko. Gazte-lekurako bi jarduera proposamen ere sortu dira begiraleek gazteekin bideratu eta bertan jazotako behaketa-analisia ere jasotzeko. Ondoren egin dira aurrez aurreko elkarrizketak, bakoitzarekin ordu beteko jardun saioak. Guztiak grabagailuz grabatu eta transkribatu dira<sup>7</sup>.

Elkarrizketatuei dagokionez honela aukeratu dira:

- a) **Irakasleak:** maila bakoitzeko irakasle bati eskatu zaio parte hartzeko, beraz, ikastetxe bakoitzeko 3 irakaslek eman dute informazioa. Orotara, 10 irakasleren datuak (Migel Altuna ikastetxean irakasle 2) jaso ditugu. Zehazki honela banatuta:

---

<sup>7</sup>Aipatu dokumentuak (galdetegi-gidoia, jarduera proposamenak eta transkripzioak) eranskinetan daude.



- Aranzadi Ikastolan DBH eta Batxilergo mailako 3 irakasle.
  - Mariaren Lagundian, DBH eta Batxilergo mailan, 2 irakasle eta moduluetakoa irakasle bat.
  - Ipintza Ikastetxean, DBH eta Batxilergo mailako 3 irakasle.
  - Miguel Altuna institutuan, Lanbide Heziketan diharduten 2 irakasle.
- b) **Ikastetxeetako begiraleak:** Mariaren Lagundian liburutegiko zaintzaileak eman ditu datuak eta Ipintza zein Aranzadin irakasleek eman dute testuinguru honen berri. Beraz, 3 begiraleren informazioa ere jaso da emaitza kualitatiboetan.
- c) **Musika Eskolako zuzendaria:** eremu honetako datuak jasotzea interesgarri ikusten zenez, Musika Eskolako zuzendariak ere parte hartu du galdetegi-gidoiari erantzuten.
- d) **Xabalote Gazte-lekua:** hiru begiralek lan egiten dute momentu honetan, eta datu kuantitatibo zein kualitatiboak hiruren artean osatzeko eskakizuna egin diegu. Hirurekin batera egin da, adibidez, elkarrizketa. Gazte-lekura joaten diren nerabeen artean, bertako begiraleek hautatutako nerabekideari eskatu zaio parte hartzeko; begiraleek kudeatu dituzte datu biketarako proposatu ditugun jarduera eta behaketak; jarduerok nahiz haien gaineko deskribapen zein gogoetak ere begiraleen esku gelditu dira. Gazte-lekuko nerabeen datu kuantitatiboak eta behaketaren emaitzak jasotzeko zailtasunak izan ditugu nerabeen partaidetza edo motibazio faltagatik, hortaz, azken honen daturik ez da jaso.

Arlo kualitatiboan, Bergarako euskara teknikariak eta SLK-ko teknikariak elkarrekin lan egin dute. Bergarako euskara teknikariak lagundu du elkarrizketatuen eta ikertzaileen arteko koordinazioa gauzatzen (hitzorduak finkatzen, galderak bidaltzen, grabaketak transkribatzen...), elkarrizketak gauzatzen eta elkarrizketen ondorengo edukiak taularatzen. Bestalde, SLK-tik egin den lana izan da elkarrizketetarako partaideak eta mintzagaiak zein izango diren hautatzea, horren arabera galdetegia prestatzea, elkarrizketak gauzatzea eta elkarrizketa grabatuak edukietan antolatzeko txantiloia sortu, nahiz ateratako emaitzak aztertu eta ondorioak ateratzea.

Alderdi kualitatiboan azterketan aurkeztuko da helduek nerabeen hizkuntza erabileraren gainean dituzten pertzepzioak zein diren; halaber, jaso dira gai honen ingurumarian helduek dituzten iritzi eta proposamenak ere.



### 3. EMAITZA KUANTITATIBOAK ETA ONDORIOAK

Atal honetan alderdi kuantitatiboan oinarritutako ikerketaren emaitzak eta ondorioak aurkeztuko dira.

Hiru ataletan aurkeztuko dira emaitza kuantitatiboak eta hauen ondorioak:


- Batetik, nerabeen ezaugarrien deskribapena: etxeko hizkuntza, gaitasun erlatiboa eta hizkuntzekiko iritziak (zerekin lotzen duten hizkuntza, eta zertarako balio duen hizkuntzak).
- Bestetik, ikergai izan diren egoera (lekuak, pertsonak eta elikabideak), hizketa-egintza eta testu-generoak: aldagai horien arabera, Bergarako nerabeen hizkuntza-erabilera zenbatekoa den deskribatuko da. Datuak erabilera handienetik txikienera antolatu dira.
- Azkenik, eta ikerketaren hipotesien baieztatze edo ezeztatzea: menpeko aldagai eta aldagai independenteen arteko erlazio estatistikoa aztertu eta erlazio hori esanguratsua den kasuetan enfasia jarriko da.

#### 3.1. NERABEEN EZAUGARRIAK: DESKRIBAPENA

Begarako nerabeen hiru ezaugarri mota aztertu dira: batetik, gurasoengatik nerabeek jaso duten hizkuntza, bestetik, hizkuntza-gaitasun eta gaitasun erlatiboa, eta azkenik, hizkuntzekiko dituzten hainbat iritzi. Emaitza nagusienak laburtuko dira jarraian.

#### 3.2. GURASOENGANDIK NERABEEK JASOTAKO HIZKUNTZA

2. grafikoa. Gurasoengandik jasotako hizkuntza (%), Bergarako nerabeak, 2013




Ikus daitekeen bezala, Bergarako nerabeen artean euskara bakarrik %46ak jaso du gurasoengandik. Kopuru horri euskara eta gaztelania batera jaso dutenen %31 batu dakioke, eta beraz, Bergarako 12-17



urte bitarteko nerabeen %77ak euskara (batzuen kasuan gaztelaniarekin batera) etxean jaso duela diote ikerketa datuek.

### 3.3. NERABEEN HIZKUNTZA-GAITASUN ERLATIBOA

3. grafikoa. Hizkuntza-gaitasun erlatiboa (%), Bergarako nerabeak, 2013



Euskaraz hobeto moldatzen direnen nerabeen ehunekoa %52a da. Horri batzen bazaio euskaraz gaztelaniaz bezain ondo moldatzen diren nerabeen portzentajea (%23) kopurua %75ra igotzen da; ia-ia euskara etxean jaso dutenen kopuru berdina (%77).

5. taula. Gaitasun erlatiboa (%) sexuaren, adin tartearen eta lehen hizkuntzaren arabera

GAITASUN ERLATIBOA	GUZTIRA	SEXUA		ADIN-TARTEA			LEHEN HIZKUNTZA			
		Neska	Mutila	12-13	14-15	16-17	Eusk.	Eusk./gazte	Gazte.	Beste
Euskaraz gaztelaniaz baino hobeto	52	63	42	52	50	55	80	42	10	33
Bietan berdin	23	23	22	24	26	17	16	42	5	33
Gaztelaniaz euskaraz baino hobeto	25	14	36	24	24	28	4	15	85	33
% Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

Sexuari dagokionez, alde nabarmena dago neska eta mutilen artean. Neskek euskarazko gaitasun erlatibo nabarmen hobea dute. Euskaraz gaztelaniaz baino hobeto moldatzen direnak nesketan %63 dira eta mutiletan %42.


Adinari dagokionez, berriz, ez da alde esanguratsurik sumatzen hiru adin-tarteetan.



Azkenik, lehen hizkuntzaren eragina nabarmena da gaitasun erlatiboan: euskara lehen hizkuntza dutenen %80ak euskaraz errazago egiten du eta, aldiz, gaztelania lehen hizkuntza dutenen %10ak egiten du euskaraz errazago.

### 3.4. NERABEEN IRITZIAK HIZKUNTZEKIKO

4. grafikoa. Euskara eta gaztelaniarekiko iritziak(%), Bergarako nerabeak, 2013



Euskara eta gaztelaniarekiko zein iritzi dituzten galdetuta, Bergarako nerabeek aipatzen dute euskara beraien herriko hizkuntza izateaz gain, polita dela, baserrikoa dela eta asko maite dutela. Gaztelania, aldiz, euskara baino egokiagoa ikusten dute gauza fuerteak esateko. Baina aldi berean gaztelania euskara baino aspergarriagoa iruditzen zaie.

Datu hauek ikusita, orokorrean azpimarratzekoa dela iruditzen zaigu, Bergarako nerabeek askoz ere hurbilagoa/maiteagoa sentitzen dutela euskara.

### 3.5. EUSKARA ETA GAZTELANIAREKIKO BIZIPENA GAITASUN ERLATIBOAREN ARABERA.

Zenbateraino daude lotuta euskararekiko bizipenak bakoitzak duen gaitasun erlatiboarekin? Jarraian datorren taulan galdera horri erantzuten saiatuko gara.



6.taula. Gaitasun erlatiboa (%) euskara eta gaztelaniarekiko bizipenen arabera

Gaitasun erlatiboa	Inkestatu guztiak %	Behartuta euskaraz egitera	Behartuta gaztelaniaz egitera	Euskaraz hitz egin nahiago	Berdin dit euskaraz zein gaztelaniaz hitz egin	Gaztelaniaz hitz egin nahiago
Euskaraz gaztelaniaz baino errazago hitz egiten dut	52	13	20	92	6	2
Bietan berdin hitz egiten dut	23	16	12	65	35	0
Gaztelaniaz euskaraz baino errazago hitz egiten dut	25	31	17	19	31	50

Hizkuntza bat edo beste egitera behartuta sentitzearen kasuan, euskarari dagokionez, ehunekoa nabarmen handiagoa da (kasik heren batera iristen dira) *gaztelaniaz euskaraz baino errazago* egiten dutenen artean *euskaraz errazago* edo *berdin egiten* dutenen artean baino. Gaztelaniaz egitera behartuta sentitzeari dagokionez, *euskaraz hobeto* moldatzen direnetan da sentimendu hori errotuen eta paradoxikoa badirudi ere, ondoren gaztelaniaz errazago moldatzen direnak datoz.

Hitz egitea gogokoen duten hizkuntzari dagokionez, berriz, lotura estu-estua du gaitasun erlatiboarekin. Aipagarria da bi hizkuntzatan berdin moldatzen direla diotenen bi herenek nahiago duela euskaraz egitea.

### 3.6. NERABEEN PARTE HARTZEA ESKOLAZ KANPOKO MUNDUAN

Atal honetan gazteek eskolaz kanpoko munduan duten parte-hartzea aztertuko dugu hiru multzotan: eskolaz kanpoko jarduerak, sare sozialak eta hedabideak. Alde batetik, guztirako parte hartzea zenbaterainokoa den jakin nahi dugu eta bestetik, parte-hartzea hori honako hiru aldagaien arabera ere aztertu dugu: sexua, adin-tartea eta lehen hizkuntza.

**7.taula. Nerabeen parte-hartzea eskolaz kanpoko munduan (%) sexuaren, adin tartearen eta lehen hizkuntzaren arabera<sup>8</sup>**

	PARTE-HARTZEA GUZTIRA		SEXUA		ADIN-TARTEA			LEHEN HIZKUNTZA			
	Bai	Ez	Neska	Mutila	12-13	14-15	16-17	Eusk.	Eusk./gazt	Gazt.	Beste
<b>Aztertutako nerabeen ezaugarriak guztira</b>			<b>48</b>	<b>52</b>	<b>35</b>	<b>37</b>	<b>28</b>	<b>45</b>	<b>31</b>	<b>21</b>	<b>3</b>
Kirol entrenamendua	67	33	41	<b>59</b>	38	35	27	<b>51</b>	31	15	3
Gazte-lekua	58	42	<b>53</b>	47	<b>50</b>	37	13	44	32	19	5
Kultur jarduera	36	64	<b>61</b>	39	<b>46</b>	30	23	<b>52</b>	29	19	1
Tuenti	95	5	50	50	36	36	28	46	29	21	3
WhatsApp	85	15	52	48	34	38	29	48	30	20	2
Twitter	63	37	45	55	18	<b>46</b>	<b>35</b>	42	24	<b>30</b>	3
Facebook	32	68	47	53	37	28	<b>35</b>	33	27	<b>35</b>	5
Telebista	98	2	49	51	35	37	28	45	32	20	3
Irratia	82	18	52	48	31	41	28	44	33	21	3
Egunkaria <sup>9</sup>	68	32	49	51	32	<b>43</b>	26	<b>50</b>	29	18	3
Hilabetekaria	42	58	<b>59</b>	41	25	<b>46</b>	29	41	23	<b>34</b>	3

**Eskolaz kanpoko jardueretan**, parte-hartze-orokorrari dagokionez, kirola da jarduera nagusia. Ondoren Gazte-lekua eta azkenik kultur jarduerak.

Jarduera bakoitzak baditu gainera bere ezaugarriak parte-hartzaileen sexu, adin-tarte eta lehen hizkuntzaren arabera: kirolean mutilen presentzia neskena baino handiagoa da eta, era berean, lehen hizkuntza euskara dutenek joera handiagoa dute kirolean parte hartzeko lehen hizkuntza gaztelania dutenek baino. Gazte-lekuak, berriz, neskek dira ugarien eta adinari dagokionez, 12-13 urtekoak dira nagusi. Azkenik, kultura-jardueretan neskek dira ugarien, 12-13 urtekoak eta, batez ere, lehen hizkuntza euskara dutenak.

**Sare-sozialetan**, guztiz zabaldua daude Tuenti eta WhatsApp eta, beraz, ez dago sexu, adin eta lehen hizkuntzaren araberako alde esanguratsurik. Twitter 14 urtez gorakoek erabiltzen dute gehien eta Facebookek 16 urtez gorakoetan du sarbide handiena. Bestalde, lehen hizkuntza gaztelania dutenek joera handiagoa dute azken bi sareok erabiltzeko gainontzekoek baino.

<sup>8</sup> **Taula ulertzeko azalpenak:** letra lodiz markatu ditugu “Aztertutako nerabeen ezaugarriak guztira” errenkadarekin, hau da, batez besteko orokorrarekin, alderatuz gorako desbideratze handiena (5 puntukoa edo handiagoa) duten ehunekoak.

<sup>9</sup> Hemen aipatu behar da egunkariaren kasuan, askok Goiena aipatu dutela. Goiena, berez, astero iristen da herriko etxe gehien gehienetara eta asteen bi bider etxeen %20 ingurura. Egunerokoen irakurketa berez, bajuagoa izango litzateke, beraz.



**Hedabideetan** ere, telebista ikustea, bereziki, guztiz zabaldua dago eta irratia entzutea ere oso zabaldua. Horietan ez dago alde esanguratsurik sexu, adin eta lehen hizkuntzaren arabera. Prentsa, bereziki hilabetekaria, irakurtzeko joera handiagoa dute neskek eta adin-tarteari dagokionez 14-15 urtekoek. Lehen hizkuntzari dagokionez, berriz, datu kontraesankor samarrak: lehen hizkuntza euskara dutenek joera handiagoa dute egunkaria irakurtzeko eta lehen hizkuntza gaztelania dutenek, joera handiagoa hilabetekaria irakurtzeko. Edonola ere prentsari buruzko datuak oso tentuz hartzekoak dira 9. oin-oharrean esaten denagatik, besteak beste.


### 3.7. NERABEEN HIZKUNTZA-ERABILERA: DESKRIBAPENA

---

Ikerketako galdetegian zehaztutako egoera (lekuak, pertsonak eta elikabideak), hizketa-egintza eta testu genero guztietan 12-17 urteko nerabeei zein hizkuntza erabili duten galdetu eta aitortu dutenetik osatu da ikerketa honen oinarritzko emaitzak jasotzen dituen grafikoa:



5. grafikoa. Euskararen erabilera (%) aztertutako eremu guztiak. Bergarako nerabeak, 2013



Grafikoan ikusi daitekeenez, Bergarako nerabeen hizkuntzaren erabilera ezberdina da egoera, hizketa-egintza eta testu generoen arabera: erabilera handiko eta txikiko testuinguruak ditugu.

- Erabilera txikiena %26koa da (ikusten duten telebista saioa) eta erabilera handiena %91koa (liburutegiko begiraleekin dituzten harremanetan gertatzen da).



- Testu-generoak dira erabilera txikieneko bost testuingurutako hiru: piropoak esatean (%39), txistek kontatzean (%38) eta biraoak botatzean (%33).
- Talde gidariren bat dago erabilera handieneko bost testuinguruetakoa lautan: liburutegiko begiralearekin (%91), irakaslearekin (%89), dantza-irakaslearekin (%89) eta musika-irakaslearekin (%84).
- Nerabeek testuinguru jakin batzuk (egoerak, hizketa-egintzak edo testu-generoak) euskararekin gehiago lotzen dituzte, eta horrek hizkuntza-erabilera baldintzatzen duela dirudi:

a) Aztertu testuinguruetan talde gidariaren presentziak euskararen erabileraren alde egiten du. Hona adibideak:

- Ikaskideekin duten erabilera (59) eta ikastetxeko erabilera (%72) baino nabarmen handiagoa da ikastetxeko irakaslearekin duten erabilera (%89).

Irakaslearen figurak euskararen erabileraren aldeko indar handia du, %77koa baita irakaslearekin haserretzearen erabilera maila. Aldiz, nerabe horiek gazte-lekuko beste kide batzuekin haserretzerakoan erabilera nabarmen txikiagoa da (%57), gurasoekin haserretzerakoan are txikiagoa (%47) eta koadrilako kideekin haserretzerakoan orduan eta txikiagoa (%43).

- Gazte-lekuan beste kideekin haserretzean (%57) eta Gazte-lekukoa (%64) baino nabarmen handiagoa da gazte-lekuko begiraleekin duten erabilera (%82).
- Kirol entrenamenduetan antzeko fenomeno gertatzen da, baina helduaren presentziak ez du aurreko kasuetan adina eragiten. Kirol entrenamenduetako erabilera %65ekoa da eta kirol entrenatzailearekin izandakoa %71koa.

b) Azterturiko testuinguruetan leku batzuek euskararen erabileraren alde egiten dute:

- Ikastetxean, kultur jardueran, musika jardueran eta dantzaren testuinguruetan irakasle nahiz begiraleekin, ikaskideekin nahiz taldekideekin erabilera, oro har, handiagoa da kirol eta Gazte-lekuko jardueretan baino. Zer esanik ez, testuinguru horiek gidatu gabeak eta librean izanez gero. Kultur jardueretan Gazte-lekuan edo kirol jardueretan baino euskaraz gehiago egitearen arrazoietakoa bat dago parte-hartzaileen ezaugarrietan, zalantzarik gabe, 3.1.4. puntuan adierazi bezala, ez baitituzte ezaugarri berak kultur jardueretako, Gazte-lekuko edo kirol-jardueretako parte-hartzaileek.
- *Continuum* bat dagoela dirudi: erabilera handiena gertatzen da talde gidariren bat dagoen irakaskuntza edo kultur kutsuko leku formal eta arautuetan (ikastetxe, kultur jarduera, musika-jarduera eta dantza-jardueretan). Ondorengo maila da aisia eta kirol arloko jarduera gidatuetan gertatzen dena (gazte-lekuan eta kirol jardueretan). Azkenik, erabilerarik txikiena izaten da testuinguru erabat libre eta gidatu gabekoetan.

c) Azterturiko testuinguruetan elkarrekintza-eredu eta ekoizpen batzuek euskararen erabileraren alde egiten dutela dirudi: elkarrekintza eta ekoizpen formaletan gertatzen da erabilera


handiena (azalpenak ematerakoan, bertsoa eta poesia egitean). Erabilerarik txikiena, aldiz, elkarrekintza eta ekoizpen informaletakoa da (“txorradak” esatea, txistek kontatzea...).

Bistakoa da, tartean, ikerketan proposatu diren egoera, hizketa-egintza eta testu-generoak daudela. Erabilera indize handiena, batez ere, egoera formalei lotutakoetan gertatzen da (salbuespenak albuespen). Aldiz, erabilera indize txikiena nerabeen aisialdi momentuetan eta harreman informaletan (salbuespenak albuespen hau ere). Baieztapenok zehaztasunez landuko dira txosten honetan aztergai ditugun testuinguruak landuz.

### 3.8. LEKUETAKO HIZKUNTZA-ERABILERA

Deskribapenarekin jarraituz, ikerketan proposatu diren **lekuetan** Bergarako nerabeen erabilera zenbatekoa den deskribatzen dituzten datuak bilduko dira ondorengo grafikoan.

**6.grafikoa. Euskararen erabilera (%) lekuaren arabera. Bergarako nerabeak, 2013**



Pare bat alderdi azpimarratuko ditugu aurkeztu berri dugun grafikoa dela-eta:

- Aztertutako lekuak kontuan hartuta, euskararen erabilera handiagoa da talde-gidariren bat dagoen lekuetan (kultur jardueran eta ikasgelan adibidez), nerabeak bakarrik daudenetan baino (koadrilan adibidez). Harremanen formaltasun mailak erabilera eragina duela dirudi, eta formaltasuna lekuak eta hezitzailearen (irakasle edo begiralearen) presentziak ematen dutela dirudi.
- Aipagarria da, kultur jarduerako erabilera ikastetxekoa baino handiagoa izatea. Horretan zerikusi zuzena dute kultur jardueretako parte-hartzaileen ezaugarriek: lehen hizkuntza euskara dutenak batez bestea baino gehiago, gehiengo neskak izatea... Aldi berean, aipagarria da kultur jardueretako erabileraren eta kiroletakoaren aldea (18 puntu), kontuan hartuta, bateko partaideen eta bestekoen ezaugarri soziolinguistikoak (ikus 3.1.4. puntua) oso antzekoak direla.




- Eta azkenik, nahiz eta erabilerari lotutako datua ez den, lekuari erreparatuta esanguratsua deritzogu “patioan gehien entzuten den hizkuntza” galdetzean, %49 izatea dioena euskara entzuten duela. Kopuru aski txikia aurreko aldagaiekin alderatuta.

### 3.9. HIZKUNTZA-ERABILERA PERTSONEKIN

Ikerketan Bergarako nerabeen hizkuntza-erabilera **persona zehatz batzuekin** zenbatekoa den zehaztuko da. Irakasleekin erabiltzen duten hizkuntza.

7. grafikoa. Euskararen erabilera (%) pertsonen arabera. Bergarako nerabeak, 2013



Lekuekin gertatzen den moduan, kasu honetan ere, eremu formalarekin lotura duten pertsonekin (adibidez, liburutegiko begiralea [%91], irakasleak [%89], dantzako irakasleak [%89]) euskararen erabilera handiagoa da eremu informala goetako erabilera baino (koadrilan [%53] eta ezezagunekin [%51]).

Puntu honetako emaitzak 3.2.1. puntukoekin batera aztertzen baditugu, berriz, konturatuko gara: jardun librean kirolean Gazte-lekuan baino euskaraz gehiago egiten dela eta, aldiz, talde gidariarekin hitz egitean alderantziz gertatzen dela. Bi faktoreren ondorioz dugu hori: partaideen ezaugarri soziolinguistikoak (kiroleko partaideetan lehen hizkuntza euskara dutenak gehiago) eta talde-gidarien ezaugarriak: Gazte-lekuan denak euskaldunak eta entrenatzaileetan hainbat euskaraz ez dakitenak.


### 3.10. HIZKUNTZA-ERABILERA ELIKABIDEETAN

Atal honetan nerabeek hedabide zein sare sozialetan (elikabideak) erabiltzen duten hizkuntzari erreparatuko zaio. Eremu formala alde batera utzi eta nerabeek aisian elikabideei dagokionez zein hizkuntza erabiltzen duten deskribatuko da.





### 8.grafikoa. Euskararen erabilera (%) elikabideen arabera. Bergarako nerabeak, 2013



Aurreko kasuetan eremu formala zein informala aztertzen ahalegindu bagara ere, oraingo honetan, testuinguru informalegoei helduko zaie (libreagoak eta heldurik gabeak).

- Hedabideen esparruari dagokionez, grafikoan ikus daitekeen moduan, irratiakoa da erabilerarik altuena (%65). Ondoren datoz, egunkaria <sup>10</sup> (%50), hilabetekaria (%39) eta telebista (%26).
- Bergarako nerabeetan, sare sozialetako erabilera aitortua aztertuta, WhatsAppen da erabilerarik handiena (%55). Ondoren Tuentian (%52) eta Twitterrean (%48), eta azkenik, tarte esanguratsu batera Facebookean (%29). Lehen hiruretan erabilera antzekoa da, baina Facebooken erabilera nabarmen txikiagoa da.


### 3.11. HIZKUNTZA-ERABILERA HIZKETA-EGINTZETAN

Aztertu diren **hizketa-egintzak** honakoak izan dira: Ikastetxean azalpenak, irakaslearekin haserretu, gurasoekin haserretu, Gazte-lekuan kontuak kontatu, Gazte-lekuan haserretu, lagunekin bromak egin, lagunekin kontuak kontatu, eta lagunekin haserretu.

Bildutako datuen arabera egindako grafikoak ondorengoak:

<sup>10</sup> Hemen aipatu behar da egunkariaren kasuan askok Goiena aipatu dutela. Goiena, berez, astero iristen da herriko etxe gehien-gehienetara eta astean bi bider etxeen %20 ingurura. Egunerokoen euskarazko kontsumoa nabarmen baxuagoa izango litzateke.

9.grafikoa. Euskararen erabilera (%) hizketa-egintzen arabera. Bergarako nerabeak, 2013




- Atal honetan lau hizketa-egintza izan dira ardatz: azalpenak ematea, haserretzea, gauzak kontatzea eta bromak egitea. Taulan ikusi daitekeen moduan ikastetxean (testuinguru formala) bi hizketa-egintzaren berri emateko eskatu zaie: azalpenak ematea eta irakasleekin haserretzean erabiltzen den hizkuntza. Jasotako emaitza da hizketa-egintzak baldintzatzen duela hizkuntzaren erabilera; izan ere, azalpenak egitean batez beste %90 euskara erabiltzen da; aldiz, irakasleekin haserretzean %77ra jaisten da erabilera.
- Gazte-lekuan ere, haserretzean (%57) gauzak kontatzean (%68) baino euskara gutxiago erabiltzen dute batez beste. Gurasoekin haserretzean %47koa da erabilera. Beraz, esan daiteke orokorrean haserretzean gaztelaniaz egiteko joera dagoela.

### 3.12. HIZKUNTZA-ERABILERA TESTU-GENEROETAN

Gizakiok eguneroko bizitzan hitza dugu ardatz eta komunikazioari begira etengabe testuak (idatzizkoa eta ahozkoak) ekoizten ditugu. Ikasleei egindako inkestan testu-genero jakin batzuk zein hizkuntzetan ekoizten dituzten galdetu diegu, bai baitakigu SLK-k garatutako beste proiektu batzuetatik<sup>11</sup> nerabeek normalean haserretu zein eztabaidatzean gaztelaniara jotzeko joera dutela, baita txisteak kontatzerako garaian ere.

Informazio hori ardatz hartuta testu-generoak aztertzearen aldeko aukera egin da Bergarako nerabeen errealitatea zein den irudikatze asmoz.

<sup>11</sup>Adibidez: Tolosa: ahozkoatasunaren laborategia (2009-2014). Ahozko hizkuntza Derrigorrezko Bigarren Hizkuntzan aztertu eta esku hartzeko praktiken ikerketa.

**10.grafikoa. Euskararen erabilera (%) testu generoen arabera. Bergarako nerabeak, 2013**

Grafikoak erakusten duenez euskaraz gehien egiten duten testu-generoa bertsoa-poesia da (%67).

Nerabeen egunerokotasuna aintzat hartuz, testu-genero honen presentzia urriagoa da beste batzuekin alderatuz gero. Testuinguru informalekoan ekoizten dituztenei erreparatuz, %44ra jaisten da euskararen erabilera batez beste ("txorradak" kontatzean eta kantuan), eta aurrez aipaturikoa berrekarri eta baieztatzen da Bergarako kasuan ere: orokorrean, txistek kontatu zein haserretzean (aurreko grafikoa ikusi dugun moduan) gaztelaniara gehiago jotzeko joera dute. Bestalde, biraoak botatzerako orduan inkestatu diren nerabeen batez besteko euskararen erabilera %33 da.

### 3.13. ERABILERA: ALDAGAI INDEPENDENTE ETA MENPEKOEN HARREMANA

Atal honetan, ohar metodologikoan aipatutako hipotesiak baieztatu edo ezeztatzeari ekingo zaio. Horretarako aldagai independenteen (adina, sexua, etxeko hizkuntza eta hizkuntza-gaitasuna) eta menpeko aldagaien arteko erlazioak hartu dira aintzat, esanguratsuak direnak identifikatuz eta horietan enfasia jarritz.

Sarreran aipatu gisan, aldagai independente eta menpekoak zehaztu dira. Menpekoen artean batzuk aukeratu dira: testuinguru formaleko, informaleko eta tarteko hizkuntza-erabilera zehatzago aztertu nahian. Aldagai independentez independente egingo da azterketa eta grafikoetan gezi batez nabarmenduko da alde esanguratsua dagoen bakoitzean.

### 3.14. ADINA

Bergaran aurrez egindako analisi bat erabili da ikerketa honen abiapuntu gisa ("Euskararen egoera Bergaran 2012. Adierazle nagusiak eta egoera ulertzeko gakoak"). Txosten horren arabera, haurrak dira euskara gehien darabiltenak, eta ondoren datoz gazteak, helduak eta zaharrak; gainera, gazteen erabilera Bergaran, besteak beste, jaitsi egin da azken hamar urteotan. Beraz, "adinak erabilera




baldintzatzen du" hipotesia baieztatzeko adina eta hautatutako menpeko aldagaien arteko erlazioan sakonduko da atal honetan.


**Adinaren eta menpeko aldagaien arteko harremana aztertu ondoren, hona ondorioa: ikerketa-gai dugun adin-tartean (12-17 urte) adinaren eta menpeko aldagaien arteko harremana ez dela, orokorrean, baldintzatzailea. Testu-generoaren kasuan, aldiz, kontuan hartzeko moduko diferentziak neurtu dira. Esate baterako, txistek kontatzeko kasuetan, adin handiagokoek gutxiago egiten dute euskaraz adin txikiagoa dutenek baino. Eta hori testu-genero guztietan gertatzen da.**

Hona emaitzak aldagai independenteak eta menpekoak gurutzatu ondoren:

**11. grafikoa. Euskararen erabilera (%) hainbat lekutan, adinaren arabera. Bergarako nerabeak, 2013**



12. grafikoa. Euskararen erabilera (%) pertsonekin, adinaren arabera. Bergarako nerabeak, 2013




Uste zitekeenaren kontra, orokorrean, ez da harreman argirik ikusten nerabeen adinaren eta euskararen erabileraren artean: horrela, aldagai batzuetan 12-13 urtekoak dira euskara gehien erabiltzen dutenak eta beste batzuetan juxtu alderantziz gertatzen da, eta 16-17koak dira aurretik azaltzen zaizkigunak. Adin-talde ezberdinen emaitzen arteko aldeak gainera, ez dira oso handiak kasurik gehienetan.

Horiek horrela, **adinaren aldagaia** ez da esanguratsua izan leku zein pertsoneri dagokionez, izan ere, eremu horiek bakarka hartuta eta hiru adin-tarteak kontuan izanda ez baita alde esanguratsurik agertzen batez bestekoarekiko (10 puntu baino alde txikiagoa). Ez da, halaber, alde argirik antzematen sare sozialetan adin batekoak eta bestekoak egiten duten hizkuntzen erabileran. Kasuren batzuetan datuek alde aipagarriak erakusten dizkigute (Facebookeko erabileran, adibidez), baina datu horien oinarrian ditugun azpi-laginen neurri txikiek ez digute alde horiek esanguratsuak direnik esaten ahalbidetzen. Lagin handiagoan oinarritutako ikerketek argitu beharko dute datu hauek erakusten dituzten joerak errealitatearen isla diren edo zoriaren ondorio diren.


Bestalde, aipamen txiki bat egin nahi da atal honetan “Gazte-lekuko begiraleekin erabiltzen duten hizkuntza” galderari dagokionean. Bergarako euskara zerbitzutik jakin dugunez, galdetegiak bete dituzten nerabe batzuek Gazte-lekua terminoa Gaztetxearekin lotu dute (Gazte-lekura ez, baina Gaztetxera joaten direnek), beraz, ezin genezake esan gunehorri lotutako erantzunak zuzenean eta zehazki Gazte-lekuari dagozkionik. Kontuan hartzeko datua izango da ondorengo interpretazioak egiteko garaian.



13. grafikoa. Euskararen erabilera (%) sare sozialak, adinaren arabera. Bergarako nerabeak, 2013




14. grafikoa. Euskararen erabilera (%) hedabideak, adinaren arabera. Bergarako nerabeak, 2013



Irakurtzen duten hilabetekariaren eta egunkariaren kasuan adinaren araberako aldeak antzematen dira inkestaren datuetan. Hilabetekariaren kasuan, gero eta zaharrago orduan eta txikiagoa da euskararen erabilera. Datu hauek, ziurrenik, gazteek eskura duten eskaintzaren argitara (eskaintza hori adin-tarte bakoitzarentzat zein punturaino den interesgarri kontuan hartuta, alegia) interpretatu beharko dira. Egunkariarenean ere, 12-13 urtekoek aitortzen dute euskararen erabilera handiena.



15. grafikoa. Euskararen erabilera (%) hizketa-egintzak, adinaren arabera. Bergarako nerabeak, 2013




Hizketa-egintzei dagokionez testuinguru ezberdinak aukeratu dira: ikastetxean azalpena ematea (testuinguru oso formala), gazte-lekuan haserretzean, gazte-lekuan gauzak kontatzerakoan (testuinguru erdi gidatua), koadrilako kideekin bromak egitean eta koadrilako kideei kontuak kontatzean (testuinguru informala)

- Ikastetxeari dagokionez, hiru adin-tarteek batez beste nagusiki euskara erabiltzen dute ikastetxean azalpenak emateko (94-90-85); hiru adin-tartetan gutxien erabiltzen dutenak 16-17 urte bitartekoak dira.
- Gazte-lekuko eremuan egiten duten hizketa-egintzak eragina du hizkuntza erabileran, izan ere, Gazte-lekuan gauzak kontatzerako orduan eta kideekin haserretzean euskararen erabilera ez da berdina. Gauzak kontatzerako momentuan (73-64-54) euskara gehiago erabiltzen dute kideekin haserretzean baino (60-57-33). Bi kasuetan adina aurrera joan ahala euskararen erabilera urritu egiten da gutxien erabiltzen dutenak 16-17 urte bitartekoak izanik.
- Nerabeen aisialdiko testuinguru informalenera joz gero, kasu honetan ere, hizketa-egintzaren arabera ezberdina da erabilera, izan ere, koadrilan kontuak kontatzerakoan euskara gehiago erabiltzen da (57-57-50), kideekin bromak egiterakoan baino (54-54-50). Aurreko kasuetan gertatzen den moduan, oraingo honetan ere gutxien erabiltzen dutenak 16-17 urtekoak dira.



16. grafikoa. Euskararen erabilera (%) testu-generoak, adinaren arabera. Bergarako nerabeak, 2013



Orain arte, adinaren azterketan ez dugu joera argirik adierazteko moduko konstanterik aurkitu. Testu generoei bere osotasunean begiratuta, ordea, bai: kasu guztietan, urteak aurrera joan ahala euskara gutxiago erabiltzen dute Bergarako nerabeek, bai biraoak botatzean, txistek kontatzean, piropoak esatean, kantuan aritzean eta "txorradak" kontatzean, egoera horietan guztietan adinean gora egin ahala euskararen erabilera behera egiten duela erakusten dute inkestako datuek, 16. grafikoa ikus daitekeen bezala.

### 3.15. SEXUA


"Nerabeen sexuak erabilera baldintzatzen du" hipotesia formulatu da ikerketaren hasieran. Hipotesia baieztatzeko sexua eta hautatutako menpeko aldagaien arteko erlazioan sakonduko da. Hona ondorioa:

**Nerabeen sexuaren eta menpeko aldagaien artean harreman esanguratsua dago. Nesken euskararen erabilera mutilen erabilera baino nabarmen handiagoa da.**






**17. grafikoa. Euskararen erabilera (%) lekuak, sexuaren arabera. Bergarako nerabeak, 2013**



- Lekuei dagokionez, orokorrean euskara neskek mutilek baino gehiago erabiltzen dute.
- Nesken eta mutilen erabilera indizea oso antzekoa da ikastetxean.
- Gainerako lekuetan, alde esanguratsua dago neska-mutilen erabileraren artean.


**18. grafikoa. Euskararen erabilera (%) Pertsonak, sexuaren arabera. Bergarako nerabeak, 2013**




- Pertsonari erreparatu gero, neskek nabarmen erabiltzen dute euskara gehiago. Aztertu ditugun harreman guztietan esanguratsua da mutilen eta nesken arteko erabilera tartea. Horretarako egon litezkeen arrazoi bat izan liteke, beste batzuen artean, neskek jarduerak euskaldunen artean (kultur jardueretan, musikan...) parte hartze handiagoa izatea.



19. grafikoa. Euskararen erabilera (%) sare sozialak, sexuaren arabera. Bergarako nerabeak, 2013



20. grafikoa. Euskararen erabilera (%) hedabideak, sexuaren arabera. Bergarako nerabeak, 2013




Nerabeen testuinguru informalegoei dagokionez, elikabideak aztertu dira aurreko bi grafikoen bidez: hedabideak eta sare sozialak.

- Sare sozial guztietan (Twitterrean ez, kasu horretan berdina da erabilera), nesken erabilera handiagoa da, baina aldea ez da esanguratsua.
- Hedabideei dagokionez, alde esanguratsuak daude hilabetekarien (mutilek gehiago eta modu esanguratsuan gainera) eta irratiaren kasuan (neskek modu esanguratsuan eta gehiago).
- Hedabideetan zentratuta, interesgarria da erreparatzea irakurtzen duten hilabetekariari zein entzuten duten irratiari.




- Hilabetekaria euskaraz mutilek gehiago irakurtzen dute. Honen arrazoia aurki liteke neskek irakurtzen dituzten hilabetekarietan ("txutxu-mutxu" zein modan zentratzen direnak: *Cuore*, *Glamour*, *Marie Claire*).
- Irratiari dagokionez, aldiz, neskek euskaraz gehiago entzuten dute. Beraien erantzunak irakurri eta batez ere nagusitu den irrati da Gaztea.

**21. grafikoa. Euskararen erabilera (%) hizketa-egintzak, sexuaren arabera. Bergarako nerabeak, 2013**



**22. grafikoa. Euskararen erabilera (%) testu-generoak, sexuaren arabera. Bergarako nerabeak, 2013**



Hizketa-egintza zein testu-generoei dagokionez, ez dago neska eta mutilen artean ezberdintasun esanguratsurik; hala ere, koadrilan bromak egiteko garaian neskek euskara gehiago erabiltzen dute, baita koadrila zein Gazte-lekuan kontuak kontatzerakoan ere. Aldiz, ikastetxean azalpenak ematerakoan



eta Gazte-lekuan haserretzean mutilek euskara gehiago erabiltzen dute. Testu-generoei dagokienez, biraoetan izan ezik testu genero guztietan euskararen erabilera jaitsi egiten da mutilen kasuan.

### 3.16. ETXeko HIZKUNTZA


Etxeko hizkuntzak eragin zuzena duela ikusi izan da hainbat ikerketetan eta ikerketa honetan aldagai independente bezala aztertzea erabaki zen. Baina etxeko hizkuntzak baldintzatzen al du gure menpeko egoeretako hizkuntza-erabilera?

Ondorioa: **bai, etxeko hizkuntzak modu esanguratsuan baldintzatzen du menpeko aldagaietako hizkuntza erabilera.**

Aztertutako testuinguru ia guztietan esanguratsua da etxean euskara bakarrik dutenen erabilera eta etxean gaztelania bakarrik edo beste hizkuntzaren bat dutenen artean dagoen tartea.


Kasu batzuetan, alde esanguratsuak antzeman dira etxeko hizkuntza euskara bakarrik eta euskara eta gaztelania dutenen artean, baita etxean euskara eta gaztelania eta gaztelania bakarrik dutenen artean ere. Azter ditzagun emaitzak zehaztasunez.

23. grafikoa. Euskararen erabilera (%)lekuak, etxeko hizkuntzaren arabera. Bergarako nerabeak, 2013




- Orokorrean, hurrenkera bera antzeman daiteke aztertutako leku guztietan: euskara gehien erabiltzen dutenak etxean euskara bakarrik erabiltzen dutenak dira. Ondoren, etxean euskara eta gaztelania erabiltzen dutenak. Gero, beste hizkuntzaren bat dutenak eta azkenik, etxean gaztelania bakarrik erabiltzen dutenak.

24. grafikoa. Euskararen erabilera (%) pertsonak, etxeko hizkuntzaren arabera. Bergarako nerabeak, 2013




- Grafikotan ikus daitekeenez, etxetik euskara duten nerabeek euskara gehiago erabiltzen dute etxetik gaztelania dutenek baino: bai kalean zein koadrilan, esaterako. Aipatzekoa da nahiz eta erabilera gehiago duten etxetik euskaldun direnek, testuinguru formaletan (ikastetxea, kirol-entrenamendua) etxetik gaztelania jasotzen duten nerabeen erabilerak nabarmen egiten duela gora.
- Era berean, etxean euskara eta gaztelania erabiltzen dutenen erabilera aztertutako pertsonekin handiagoa da, etxean gaztelania bakarrik erabiltzen dutela diotenen aitortutako erabilera baino. Aztertutako kasu guztietan da alde hori esanguratsua.
- Lekuekin gertatzen zen bezala aztertutako lau pertsona motetatik hirutan, etxeko hizkuntza beste hizkuntza bat dela diotenen erabilera handiagoa da etxeko hizkuntza gaztelania bakarrik dutela diotenen nerabeena baino (koadrilako erabilera salbuespena).

**25. grafikoa. Euskararen erabilera (%) sare sozialak, etxeko hizkuntzaren arabera. Bergarako nerabeak, 2013**



- Lekuekin eta pertonekin gertatzen den fenomeno bera gertatzen da aztertutako sare sozial guztietan. Tuentian salbuespen txiki bat dago (patioko eta koadrilako erabilerarekin gertatzen zen bezala): etxean beste hizkuntzaren bat dutenen erabilera ez da etxean gaztelania bakarrik dutenen erabilera baino handiagoa.

**26. grafikoa. Euskararen erabilera (%) hedabideak, etxeko hizkuntzaren arabera. Bergarako nerabeak, 2013**




- Hedabideetan ere fenomenoak errepikatu egiten da praktikan kasu guztietan, hilabetekarien kasuan izan ezik.




- Irratiari dagokionez, alde esanguratsua dago etxean euskara eta gaztelania dituztenen erabileraren eta etxean gaztelania bakarrik dutenen erabileraren artean.
- Egunkariari dagokionez, emaitzetan jaso diren aldeak nabarmenak dira.

**27. grafikoa. Euskararen erabilera (%) hizketa-egintzak, etxeko hizkuntzaren arabera. Bergarako nerabeak, 2013**



- Ikastetxean izan ezik, oraingo honetan ere, aurreko kasuetan gertatzen den gisan euskara gehien erabiltzen dutenak etxean euskara jaso dutenak dira. Hala ere, aipatzekoa da testuinguruko pertsonak zein hizketa-egintzak geroz eta informagoak izan euskararen erabilera gero eta txikiagoa dela.

**28. grafikoa. Euskararen erabilera (%) testu-generoak, etxeko hizkuntzaren arabera. Bergarako nerabeak, 2013**



- Testu generoetan ez da orain arte behin eta berriro aipatzen ari garen fenomeno hain modu garbian errepikatzen. Orokorrean erabilari dagokionez, etxean bakarrik euskara dutenena da handiena, ondoren etxean euskara eta gaztelania dutenena eta gero etxean gaztelania bakarrik dutenena (hor jadanik salbuespen txiki bat dago).
- Baina salbuespen eta ñabardura gehiago egin behar dira testu generoen kasuan orain arte aztertutako testuinguruetan agertu ez diren hainbat kontu azaleratzeko. Izan ere, kantuari eta biraoak botatzeari dagokionez etxean gaztelania bakarrik dutenen erabilera etxean euskara eta gaztelania dutenena baino handiagoa da (horrelako salbuespen batzuk izan ditugu lehen ere, kontziente gara lagina txikia dela baina emaitzek emandako joeraren berri eman dezakete).
- Are gehiago, etxean gaztelania bakarrik dutenen erabilera etxean beste hizkuntzaren bat dutenena baino handiagoa da kasu guztietan. Orain arte aztertutako testuinguruetan agertu ez zitzaigun fenomenoak agertu zaigu testu generoetan.

Ildo horretatik, beste egoera guztietan etxeko hizkuntzaren eragina nabaria den arren, erreparagarria da etxean euskara erabiltzen dutenen artean erabilera testuinguru batzuetan nahikoa esanguratsuki jaitea: testu generoetan, elikabideetan (telebista, hilabetekaria, Facebook), zein koadrilan, esaterako.

### 3.17. HIZKUNTZA-GAITASUN ERLATIBOA

Hizkuntza-gaitasun erlatiboak, etxeko hizkuntzaren gisan eragin zuzena duela ikusi izan da hainbat ikerketetan eta oraingo honetan ere aintzat hartzea interesgarria da.


**Hizkuntza-gaitasunak modu esanguratsuan baldintzatzen du menpeko aldagaietan.** Euskaraz hobeto moldatzen direnen erabilaren eta gaztelaniaz hobeto moldatzen direnen erabilaren artean alde esanguratsua dago beti. Kasu batzuetan alde hori ere esanguratsua da euskaraz hobeto moldatzen





direnek aitortutako erabileraren eta bietan berdin moldatzen direnek aitortutako erabileraren artean. Kasu gehienetan bietan berdin eta gaztelaniaz hobeto moldatzen direnen artean ere alde esanguratsua dago. Azter ditzagun emaitzak zehatzago.


**29. grafikoa. Euskararen erabilera (%) lekuak, hizkuntza-gaitasunaren arabera. Bergarako nerabeak, 2013**



- Kultur jardueran gertatzen dena salbuespena bada ere (bietan berdin moldatzen direnek euskaraz moldatzen direnak baino puntu bat gehiago erabiltzen dute euskara), gainerako kasu guztietan hurrenkera beti bera da: euskaraz hobeto moldatzen direnak dira euskara gehien erabiltzen dutenak. Ondoren daude bietan berdin moldatzen direnak. Eta azkenik, gaztelaniaz hobeto moldatzen direnak.
- Kasu batzuetan, aldeak oso nabarmenak dira: Gazte-lekuan (%77-%32), kalean (%68-%30) koadrilan (%64-%31), kirol-entrenamenduetan (%77-%47)... Beste batzuetan (ikastetxean edo kultur jardueretan), berriz, nabarmen txikiagoak.




### 30. grafikoa. Euskararen erabilera (%) pertsonak, hizkuntza-gaitasunaren arabera. Bergarako nerabeak, 2013




- Kasu guztietan hurrenkera beti bera da: euskaraz hobeto moldatzen direnak dira euskara gehien erabiltzen dutenak. Ondoren daude bietan berdin moldatzen direnak. Eta azkenik, gaztelaniaz hobeto moldatzen direnak.
- Alde esanguratsua dago euskaraz hobeto eta bietan berdin moldatzen direnen artean kirol-entrenatzailearekin aitortzen duten erabilerari dagokionez (%84-%66) eta koadrilako erabilerari dagokionez (%65-%53).
- Alde esanguratsua dago kasu guztietan, bietan berdin moldatzen direnek aitortutako erabilera eta gaztelaniaz hobeto moldatzen direnek aitortutakoaren artean.

**31. grafikoa. Euskararen erabilera (%) sare sozialak, hizkuntza-gaitasunaren arabera. Bergarako nerabeak, 2013**



Lekuekin eta pertsonekin gertatzen den fenomeno bera gertatzen da sare sozialetako erabileraren kasuan ere. Hizkuntza-gaitasun erlatiboak modu esanguratsuan baldintzatzen du erabilera. Sare sozialetan, gainera, aldagai honen kategoria guztien artean alde esanguratsuak daude sare sozial guztietan: handiagoa da gaztelaniaz hobeto moldatzen direnen erabileraren eta bietan berdin moldatzen direnen erabileraren arteko tartea, bietan berdin moldatzen direnen erabileraren eta euskaraz hobeto moldatzen direnen erabileraren artean dagoena baino, baina azken bi talde horien artean dagoen tartea ere esanguratsua da.

**32. grafikoa. Euskararen erabilera (%) hedabideak, hizkuntza-gaitasunaren arabera. Bergarako nerabeak, 2013**




Aipatzen ari garen fenomeno bera errepikatzen da hedabideetan ere, hilabetekarien kasuan izan ezik. Hilabetekarien kasuan, emaitzak harridura sortzen du, lehen begiratuan: alde batetik, euskaraz hobeto




moldatzen direnen erabileraren eta bietan berdin moldatzen direnen erabileraren artean tarte esanguratsua dago, baina gaztelaniaz hobeto moldatzen direnen eta bietan berdin moldatzen direnen kontsumoa oso antzekoa da. Baliteke horretan zer ikusirik izatea Udalak DBH 4ko ikasle guztiei *Gaztezuloren* doaneko harpidetza egiteak, aldizkari hori baita gehien aipatzen duten euskarazko hilabetekaria.

**33. grafikoa. Euskararen erabilera (%) hizketa-egintzak, hizkuntza-gaitasunaren arabera. Bergarako nerabeak, 2013**



**34. grafikoa. Euskararen erabilera (%) testu-generoak, hizkuntza-gaitasunaren arabera. Bergarako nerabeak, 2013**



Gaitasun erlatiboari so eginez gero, gure ustea baieztatu da, hau da, elebidunen kasuan gaitasun erlatiboak modu esanguratsuan baldintzatzen du erabilera aztertutako menpeko aldagai askotan.



Espazioak, pertsonak zein hizketa-egintzak aintzat hartuta, euskararen erabilera altuagoa da eremu formalagoetan informalagoetan baino, baita euskaraz hobeto moldatzen direnena ere. Testu-generoetan aurrez baieztatu dena errepikatzen da, hau da, hautatu diren testu-generoak mundu informalarekin lotuak daudenez euskararen erabilera gutxitu egiten da, baita euskaraz hobeto moldatzen direnena ere.



## 4. EMAITZA KUALITATIBOAK: ETA HELDUEK ZER DIOTE?

---

Irakasle eta begiraleei egindako elkarrizketen bidez aukera izan da hainbat alderdiri buruzko euren pertzepzioa, ustea, iritzia jasotzeko. Azken hamar urteetan gertatutako aldaketen inguruko informazioa eman dezaten eskatu zaie. Atal honetan ikerketa kualitatiboan jasotakoa sintetizatu da, eta honakoak dira emaitza esanguratsuenak:

### 4.1. GAZTELANIA EGITEKO ADINA AURRERATU EGIN DA

---

Helduen ikuspegitik, Bergaran azken hamarkada honetan aurreratu egin da ikasleek gaztelania erabiltzeko adina. Oro har, DBH 3 edo 4n gaztelania gehiago erabiltzen hasten direla diote irakasleek, eta zenbait kasutan, 1. ziklora (DBH 1 eta 2) ere jaitsi dela aitortzen da. Datu honek, batez ere, pisu handia du Ipintza eta Mariaren Lagundia ikastetxeetan. Eta badirudi, Aranzadi ikastolan beranduxeago ekiten zaiola gaztelania erabiltzeari.

### 4.2. GAZTELANIA, MUTILEK GEHIAGO

---

Datu kuantitatiboetan argi gelditu den modura, datu kualitatiboekin ere 2. hipotesia baieztatzekotan gara: irakasle eta begiraleek aitortzen dute *sexuak baldintzatzen duela hizkuntzaren erabilera*. Mutilek gaztelania gehiago darabilte neskek baino.

Helduek diotenetik, nesken koadrilak egonkorragoak dira, beraz, bertako ohiturak ere bai (hizkuntza ohiturak barne). Mutilek, berriz, harremanetarako aukera askotarikoagoa izan ohi dute eta askotan koadrila hizkuntza aldatzen dute gaztelaniaren alde. Dena dela, errealitate hau sakonago aztertu beharko litzateke ikerketa- eta ezagutza-eremu ezberdinak baliatuta (soziologia, antropologia eta gisakoak, adibidez).

### 4.3. GAZTELANIA IRAKASLEARI EGITEKO OHITURA UGARITU

---

Euskara gehien ikastetxean eta ikasle-irakasle komunikazio testuinguruan erabiltzen da (datu kuantitatiboek ere hori erakutsi digute). Irakasleen ustez, ordea, nerabeen hizkuntza ohiturak ikastetxean eta irakaslearekin aldatzen ari dira.

Gaztelania irakasleari egiteko ohitura ugaritu dela dirudi azken hamarkadan. Irakasleek diote lehen oso ondo bereizten zela eremu akademikoaren hizkuntza: euskaraz egiten zitzaion ikastetxean irakasleari eta euskaraz egiten zen ikastetxean irakaslea bertan zela. Hori orain ere horrela dela erakutsi digute datu kuantitatiboek.

Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan gertatzen diren elkarrekintzetan erabiltzen da euskara gehien. Interesgarria izan daiteke testuinguru hauek aztertzea jakiteko zenbat hitz egiten duten ikasleek, zertarako erabiltzen duten hizkuntza (galderei erantzuteko, argudioak emateko edo...) eta zenbateraino esku hartzen den (irakaslearen aldetik) erabileran honen gainean, ulertuz edozein edukiren bidez garatu ahal dugula komunikazio gaitasuna. SLK-rentzat, oso aldagai interesgarria izan daiteke honakoa.



Bestalde, Miguel Altuna institutuan aipatu denaren haritik, irakaskuntza objektua lantzeko erabiltzen den material didaktikoaren hizkuntzak ere badu eraginik ikasle-ikasle arteko hizkuntza ohituretan. Material didaktikoa gaztelania den egoeratan ahoz ere gaztelania erabiltzeko ohitura sortzen da. Aldiz, material didaktikoa euskarazkoa izateak lagundu egiten du ikasle-irakasle arteko elkarrekintza euskarazkoa izaten; irakasgai objektuari lotutako hizkuntza moldeak, egiturak, lexikoa... euskaraz eman eta lantzen dira, beraz, euskaraz egiten dira galdera-erantzunak. Aldiz, tresna didaktikoak gaztelaniaz direnean buru-prozesu eta elkarrekintzek gaztelaniaren alde egiten dute.

Gogoeta hauek guztiak kontuan hartuta, 5. hipotesiari erreferentzia egitea interesgarria da: *Testuinguruaren formaltasun mailak nerabeen hizkuntza erabilera baldintzatzen du*. Datu kuantitatiboetan baieztatu da hipotesia, eta datu kualitatiboek ere berresten dute aurre-ustea. Izan ere, irakasleen pertzepzioetatik testuinguruak bai, oro har, baldintzatzen du nerabeen hizkuntza erabilera: testuinguru formal eta akademikoetan euskara da nagusiki. Halere, testuinguru horietako bi egoeratan (irakaste objektua lantzeko erabiltzen den material didaktikoaren hizkuntza eta irakaslearekiko harreman batzuk [ziurrenez, hurbilekoenak]) aldaketak gertatzen ari dira gaztelaniarako joeraren alde. Eta informazio datu gehiegirik ez daukagun arren, azken bi errealitate hauek uztar daitezke 6. hipotesiarekin: *Helburu komunikatiboak nerabeen hizkuntza erabilera baldintzatzen du*. Agian, ikasle-irakasle arteko elkarrekintzetako helburu jakin batzuek testuinguru informalogetara daramatzate, eta horregatik aldatzen da ikasle nerabeen kodea. Aztergai, uste berri hau.

#### 4.4. IRAKASLE ELEANITZAREN FUNTZIOA

---

Gai honi lotuta eta irakaslearengan fokua jarrita dugula interesgarria da Mariaren Lagundian egindako gogoeta bat: “Irakasle eleanitzaren irudiak lagundu egiten du ikasleek hizkuntzaren gainean dituzten aurreiritzi eta jarreretan; oro har, hizkuntza bat = pertsona bat lotura egin ohi dute ikasleek, eta bi hizkuntza (adibidez gaztelania eta euskara) irakasten dituen irakaslearen irudiak lagundu egiten du ikasleak bi hizkuntzen inguruan dituen aurreiritzi finkoak malgutzen”.

Bestalde, irakasle eta begiraleek hizkuntza erabileraren gainean duten arduraz gogoetatuta guztiek ala guztiek bat egiten dute onartzean euskararen erabileraren aldeko lanean funtzio esanguratsua dutela, baina ez direla esku-hartze programetan kontuan hartu behar diren aldagai bakarrak, nahiz eta zenbaitetan fokua eurengan bakarrik jarri ohi den. [Horrez gain, aitortzen dute eguneroko jardunean harrapatuta dabilzala, eta ezaugarri honek ere ez duela laguntzen egiteko honetan murgiltzen eta lanean sakontzen].

Ildo horretatik pentsatu eta aztertu beharko litzateke Bergara eta ingurunean, irakasle eta begiraleez gain zein eragile izan daitezkeen adierazgarriak euskararen erabileraren aldeko jardunean. Eta eragileak identifikaturik zein izan daitekeen bakoitzaren funtzioa eta egitekoa.

#### 4.5. KODE ALDAKETAREN GAINEAN KONTZIENTZIARIK EZ

---

Hizkuntza-erabileraren gaineko gogoetatan guretzat oso esanguratsua den eta esku hartzea merezi duen beste alderdi bat da helduek diotela nerabeak ez direla ohartzen bi kode nahasten dituztela hitz egiten duten bitartean. Zein hizkuntza erabiltzen duten edo erabili duten galdetzen zaienean ere ez direla ohartzen bi hizkuntza nahasten dituztela. Oro har bi kodeak nahastu eta zein hizkuntza erabili duten



galdetzen zaien testuinguruetan euskara erabili dutela diote gehienek, nahiz eta gaztelaniak ere pisu handia izan duen ahozko ekoizpen horretan. Ildo horretatik interesgarria litzateke zehazki jakitea kode aldaketa honen ezaugarriak zein diren, hizkuntza aldaketaren kontzientzia maila nola eta zertan neurtu ote daitekeen eta gaiaren aurrean esku hartzeko zein modu landu ote litekeen.

Idea honi jarraiki, etorkizunean sakontasun handiagoz heldu beharko litzaiokeen arren, uste bertsua adierazten du lurbeasok euskararen erabileraren gaineko ikerketa baten: “(...) izan daiteke ustez ‘euskaraz’ ari diren nerabe asko, alternantzia dela medio, euskara eta erdara tartekatuz eta nahasiz aritzen direla praktikan. Eta joera hori, hizkuntzak tartekatzearena, geroz eta errotuagoa dagoela nerabeen artean, ziurrenik beraiek horretaz guztiz kontziente ez izan arren. Baliteke horrek azaltzea haien erantzunetan oinarritutako kopuruen (erabilera aitortua, ISL) eta erabilera behatuaren (EHKN) arteko alde hori, ohikoa baino handiagoa” (Lurrebaso, 2012 [3], 120).

#### 4.6. LIDERGO EUSKALDUNAREN BILA

Edozein delarik ere testuingurua euskaraz egiten jarraitzen duen nerabe perfilaren berri ere eman digute elkarrizketatuek. Honako ezaugarriak ditu lidergo euskaldunak: bere H1 euskara da, herri txikiren bateko nerabea da, euskara oso ondo menderatzen du (erregistro guztiak menderatzen ditu eta bere euskalkia edo hizkera darabil hitz egiteko, jarriotasun handia dauka, idatziz zein ahoz oso ongi moldatzen da...), ikastetxean ondo baloratutako ikaslea da (gehienetan ikasleriak onartua eta ikasketetan ona). Hizkuntza lider naturalak dira hauek eta izan daitezke baliotsuak egitasmoa aurrera joan ahala lan egiteko.

Horrez gain, jakinarazi zaigu herri txikietako ikasleek positiboki eragiten dutela euskararen erabileraren alde. Koadrila edo taldean mugitzen dira eta euren izatea zein hizkuntza markatuak dira euskararen alde azken hauek ere.

#### 4.7. NERABEEN IRITZIAK GAZTELANIA ETA EUSKARAREKIKO

Irakasleen ustez, oso ezberdinak dira nerabeen hizkuntza iritziak gaztelania eta euskararekiko. Hona datu esanguratsuenak:

8.taula. Nerabeen iritziak gaztelania eta euskararekiko irakasleen ustez

GAZTELANIA	EUSKARA
Prestigio hizkuntza	Hizkuntza ez erakargarria
Gurasoek erabiltzen duten hizkuntza	Ikastetxean irakasleek darabilten hizkuntza
Kontsumo hizkuntza	Haurtzaroko [bakarrik] kontsumo hizkuntza
Testuinguru informaletarako komunik. tresna	Testuinguru akademikoan, H. idatzia, batez ere
Ikas eta erabiltzen errazagoa	Ikas eta erabiltzen zailagoa
Erabilgarriagoa, funtzionalagoa	H. baliabide gutxi ditu, ez da funtzionala

Helduek gai honen gainean dituzten pertzepzio batzuk eta ikasleek eremu kuantitatiboan aitortuak alderatzea interesgarria da. Datu kuantitatiboetan ikusi da “euskara beraien herriko hizkuntza izatez gain, polita dela, baserrikoa dela eta asko maite dutela. Gaztelania, aldiz, euskara baino egokiagoa





ikusten dute gauza fuerteak esateko, baina aldi berean gaztelania euskara baino aspergarriagoa iruditzen zaie” (15. orr.). Helduen ustez, gaztelania euskara baino prestigiotsuagoa da, eta badirudi, gazteen ustez ez dela horrela. Eta heldu zein nerabeek aitortzen dute gaztelania testuinguru informaletako komunikazio tresna dela. Kasu honetan ere 6. hipotesia baieztatzekotan gara (*Helburu komunikatiboak nerabeen hizkuntza erabilera baldintzatzen du*).

Bestalde, irakasleen adierazpenetatik atera den beste ondorio bat da ikastetxean hizkuntza jarrera eta ohituren gainean egindako lanketak garrantzitsuak direla, baina badituztela ahulgune batzuk: momentu puntualetan gauzatzen dira jarduerok eta hortik aurrera ez dago jarraibiderik; lanketa hauek ez dute eraginik hizkuntza erabilera aldaketan; ikasleek eduki soziolinguistikoak barneratzen dituzte (batzuk ez, baina), baina horrek ez du eragiten euren jokabideetan.

Gaiari lotuta, ikasle-irakasleen euskara batzordeak eta hizkuntza ohiturak adosteko dinamikak bultzatzea interesgarri eta baliagarri direla aitortu dute irakasleek.

Gai honen harira, nerabeek zer dioten ikusi da datu kuantitatiboetan eta bi emaitzak alderatuko dira ondorengo atalean.

#### 4.8. NERABEEN HIZKUNTZA-GAITASUNAK GAZTELANIAZ ETA EUSKARAZ

Irakasleek aitortzen dutenaren arabera, honakoa da nerabeen hizkuntza-gaitasuna:

9.taula. Nerabeen hizkuntza-gaitasunak gaztelania eta euskaraz irakasleen ustez

GAZTELANIA	EUSKARA
<p><b>Testuinguru formala:</b>                      IDATZIZ: zailtasunak (zuzentasun/egokitasunean)                      AHOZ: zailtasunak (zuzentasun/egokitasunean)</p>	<p><b>Testuinguru formala:</b>                      IDATZIZ: zailtasunak (zuzentasun/egokitasunean)                      AHOZ: zailtasunak (zuzentasun/egokitasunean)</p>
<p><b>Testuinguru informala:</b>                      IDATZIZ: ondo (euren kabuz idazten dute)                      AHOZ: ondo (formulazioak ezagutu eta erabiltzen dituzte)</p>	<p><b>Testuinguru informala:</b>                      IDATZIZ: ondo (euren kabuz idazten dute; euskalkia darabilte)                      AHOZ: zailtasunak (formulazioak, hitzak falta dituzte; euskalkia darabilte)</p>

Beraz, egoki eta ondo Bergarako nerabeak moldatzen dira gaztelaniarekin testuinguru informaletan; alegia, eskolaz kanpoko testuinguruetan. Gainerakoetan zailtasunak dituzte. Izan daiteke gai hau ere lantzeko puntu garrantzitsu bat.

Ildo horretatik, irakasle eta begirale gehienek diote nerabeek gaztelaniara jotzeko aldagai esanguratsuenetakoa dela euskarazko esapideak eskura ez izatea. Beraz, aldagai hau ere kontuan hartu beharko da esku hartzeko proposamenak egiteko garaian.

Puntu honetan, 4., 5. eta 6. hipotesiak ere ukitzen dira (*Gaitasun erlatiboak Bergarako nerabeen hizkuntza erabilera baldintzatzen du; Testuinguruaren formaltasun mailak nerabeen hizkuntza erabilera baldintzatzen du; Helburu komunikatiboak nerabeen hizkuntza erabilera baldintzatzen du*), eta datu kuantitatiboen emaitzekin ere lotura dute. Izan ere, datu kuantitatiboetan ikusi dugu euskararen



gaitasun erlatiboak ez dakarrela beti euskararen erabilera testuinguru informal batzuetan, hizketa egintza jakin batzuetan, eta batez ere, testu genero zehatz batzuetan (testuinguru informaletako testuak).

#### **4.9. EUSKALKIEN BALIOA BERGARAN**

---

Bergarako nerabeentzat bertako euskalkiak balio handia eta ona du; euskaratik gertuen sentitzen duten hizketarako edo komunikatzeko (eta zenbaitetan idazteko [Aranzadi Ikastolak euskalki idatzia ere lantzen du]: testuinguru formaletan eta informaletan eta kanal askotarikoetan: eskuz, SMS bidez, Twitterren bidez...) tresna da. Begiraleek adierazi dutenaren haritik, Bergarako euskararen hainbat formulazio baliatzeko baliabideak falta dituzten arren, euskalkia bultzatu eta lantzeak lagun lezake euskararekiko eraikita dauden jarrerak eta jokabideak eraldatzen.

Bestalde, begiraleek ere aipatu dute badela aurreiritzi orokortu bat Bergarako euskararen gainean: bertako hizkera herdoilduta ez ote dagoen... hizkera galdu antzean egotearen “usaina” hartzen diote begiraleek. Agian, bertako hizkeraren gainean dagoen aurreiritzi honek ere izan lezake eraginik, eta izan daiteke aldagai bat aztertu, eta beharra ikusiko balitz, esku hartzekoa.

#### **4.10. IRAKASLE ETA IKASTETXEEK BEHAR DUTENA**

---

Aipatu gaien inguruan gogoeta egin eta zein behar dituzten irakasleei galdegin zaienean honakoetan sakontzeko beharra ikusi dute, besteak beste:

- Ahozko hizkuntza eskolan lantzeko trebetasunetan, curriculum planifikazioan eta materialgintzan sakontzea.
- Euskararen aldeko jarrera eta motibazioan sakontzeko tresnak eskuratzea (teoria eta praktikak). Bide horretan, TELP gisako metodologietan sakontzea.
- Ikastetxeetako euskara batzordeak zaindu eta landu.
- Euskara ekintza positiboekin uztartu eta orain arteko “egin euskaraz” agindutik jauzi kualitatiboa egin.
- Beste herrietako nerabeekin trukeak bultzatu.
- Gurasoekin arlo honetan sakondu.



## 5. IRAKURKETA BATERATUA ETA ONDORIOAK

---

Orain arteko ibilbidean datu kuantitatibo zein kualitatiboen emaitza esanguratsuenak deskribatzeko aukera izan da. Datu horiek kontuan hartuta, bietatik lortutako emaitzekin txostenaren abiapuntuan aurkeztutako hipotesiak berrekarriko dira lehenik, eta ondoren, interesgarri gertatu diren eduki osagarriak jorratuko.

### 5.1. ADINAREN ERAGINA HIZKUNTZAREN ERABILERAN (1. HIPOTESIA)

---

Ikerketa honetako emaitzak kontuan hartuta, orokorrean esan daiteke Bergarako nerabeen artean ez dagoela norabide bakarreko harreman argirik adinaren eta euskararen erabileraren artean. Gure datuetan oinarrituta, behintzat, ezin lehen hipotesia baieztatu.

Arau horrekiko salbuespen esanguratsua, testu-genero informalena izango genuke (ikus 16. grafikoa). Orokorrean testu-genero bakoitzean (kantuan izan ezik) adinean aurrera joan ahala euskararen erabilera gutxitu egiten da.

Bestalde, irakasleen pertzepzioetatik jaso da, gaztelania ikastetxean erabiltzeko adinaren joera jaisten ari dela; gero eta gazteagoei entzuten zaie gaztelania ikastetxean eta jotzen dute irakaslearenera hizkuntza horretan. Eta, akaso, etorkizunean azterketa bereziak eskatuko luke gai honek.

Bai emaitza kuantitatiboek eta baita irakasleen usteek pertzepzioek adierazten 12-13 urte aurretik igaro dela hainbat gaztetxo normalean euskaraz egitetik gaztelaniaz egitera.

### 5.2. SEXUAREN ERAGINA HIZKUNTZA ERABILERAN (2. HIPOTESIA)

---

Oro har, datu kuantitatibo guztiek birbaieztatu egiten dute harremana badela sexuaren eta hizkuntza erabileraren artean: orokorrean neskek mutilek baino euskara gehiago erabiltzen dute esparru gehienetan. Bestalde, sare sozialetan esaterako, Tuenti zein Twitterren mutilen zein nesken erabilera antzekoa da.

Azterketa kualitatiboek ere baieztatu dute hipotesi hau. Ideia hau interesgarria da lotzea Bergarako nerabeen harreman sozialekin: koadrilaren izaerarekin eta koadrilatik kanpoko gizarte harremanekin.

### 5.3. ETXEKO HIZKUNTZA ETA GAITASUN ERLATIBOAREN ERAGINA HIZKUNTZA ERABILERAN (3. ETA 4. HIPOTESIAK)

---

Bi aldagai independente horiek harreman argia dute aztertutako erabilera testuinguruetan.

Datu kuantitatiboak aintzat hartuta jakin dugu hori: etxeke hizkuntza euskara bakarrik dutenen eta euskaraz gaitasun erlatiboa handiagoa dutenen kasuan, orokorrean eta salbuespenak salbuespen erabilera handiagoa aitortzen dute aztertutako testuinguruetan (izan egoera, izan hizketa-egintza edo izan testu genero).



Fenomeno hori are nabarmenagoa da euskara erabiltzeko zailtasun gehiago suposatzen duten ezaugarriak dituzten nerabeen kasuan (etxeko hizkuntza euskara eta gaztelania edo gaztelania bakarrik eta gaitasun erlatiboari dagokionez euskaraz eta gaztelaniaz berdin edo gaztelaniaz hobeto moldatzen direnetan): erabilera txikiagoa aitortzen dute. Aipatu honi dagokionez bi kontu:

- Oro har, testuinguru eta asmo komunikatibo formaletan baino handiagoa da jaitziera hori testuinguru eta asmo komunikatibo informaletan.
- Jaitziera hori txikiagoa da etxeko hizkuntza euskara eta gaztelania eta gaitasun erlatiboari dagokionez euskaraz eta gaztelaniaz berdin ezaugarriak dituztenetan, eta handiagoa etxeko hizkuntza gaztelania bakarrik eta gaitasun erlatiboari dagokionez gaztelaniaz hobeto moldatzen direla aitortzen dutenen artean.

Helduen pertzepzioak kontuan hartuz ere aipatu hipotesiak baieztatzen dira, izan ere, datu kualitatiboetan zehaztu baita etxetik euskara dakarten gazteak eta batez ere herri txikietatik datozenek eusten diotela, gehienbat, euskarari edozein beharizan komunikatiboetan.

#### **5.4. TESTUINGURU FORMAL ETA INFORMALEN ERAGINA HIZKUNTZA ERABILERAN (5. HIPOTESIA)**

Nola datu kuantitatiboen emaitzetan, hala kualitatiboetan argi baieztatu den hipotesi garrantzitsua da komunikazio testuinguruak baldintzatu egiten duela nerabeen hizkuntza erabilera. Zenbat eta testuinguru formalagoa izan, orduan eta presentzia handiagoa du euskarak. Eta formaltasuna, batez ere, komunikazio ekintzaren gidaritza bideratzen duen eta hainbatetan jarduneko hizkuntza arautzen duen pertsonaren (irakasle, begirale edo entrenatzailearen) presentziak edo esku hartzeak ematen du.

Ikastetxe barruko testuinguru komunikatiboak hartzen baditugu, alde handiz, erabilera handieneko testuingurua irakaslea bera hizketakide dena izango litzateke (%89), hurrengo, alde handiarekin, ikaskideek euren artean gela barruan dutena (%66), jarraian, alde txikiagoarekin ikaskideek pasilloan dutena (% 59) eta azkenik, pasillokoarekin alde txikiagoarekin oraindik jolastokikoa (%55). Garbi dago, beraz, talde-gidariaren presentzia murrizten doan neurrian erabilera jaisten doala.

**10.taula. Testuinguru formal eta informalen eragina eskolako hizkuntza erabileran**

	Irakasleekin	Ikasgelan ikasleekin	Pasilloan ikasleekin	Jolastokian ikasleekin
Euskaraz	72	26	17	13
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	24	50	53	53
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	4	20	21	21
Gaztelaniaz	0	3	9	9
Besterik		1	0	4

Dena dela, badirudi, eta hurrengo atalean sakonduko duguna aurreratuz, leku akademikoetan (ikasgela) ikasle-irakasle arteko hizkuntza harremanak aldatzen ari direla gaztelaniaren presentziaren alde.

Bestalde, aipatzekoa da talde gidari horietako batzuen (irakasleen, dantza irakasleen, Gazte-lekuko begiraleen, musika irakasleen) eragina handiagoa dela, gehiago tiratzen dutela, nolabait beste batzuek, adibidez kirol entrenatzaileek baino. Horiekiko erabilera nolabait esateko, beste batzuek (adibidez, kirol entrenatzaileek) baino. Lehenengo multzokoekiko euskararen erabilera %80-90 bitartekoa da eta entrenatzaileekikoa %71koa.

## 5.5. HELBURU KOMUNIKATIBOAREN ERAGINA HIZKUNTZA ERABILERAN (6. HIPOTESIA)

Emaizta kuantitatibo eta kualitatiboetan baieztatu da azken hipotesi hau ere.

Orokorrean eta salbuespenak salbuespen, asmo komunikatibo informalak gauzatu nahi direnean (bromak, txistekak, haserrealdiak...) gaztelania indartsuago agertzen da.

Datu kuantitatiboetara lotuta ikusi dugu hizketa-egintzak eta testu moldeen erabileran, testuinguru informalenetako molde eta egintzetan egiten dela gaztelaniarako hautua. Eta ikerketa honetan aztertu ez bada ere, izan daiteke kode aldaketan gertatzen diren hizketa-egintzen ezaugarri bat haxe bera.

Aipatu testuinguruetan, beraz, kode aldaketa gertatzen da: bi hizkuntzen arteko kode nahasketak batzuetan, eta gaztelaniaren erabilera bestetan. Eta gero sakonduko duguna aurreratuz, helduen pertzepzioaren arabera, gazteak ez dira kode nahasketa honetaz jabetzen.

## 5.6. GAZTELANIA IRAKASLEEI EGITEKO OHITURA

Nahiz eta irakasleek esan, gaur egun, testuinguruak ez duela erabat baldintzatzen ikasleen hizkuntza erabilera, aitortzen dute ikastetxe mailan euskara gehien erabiltzen den komunikazio testuingurua ikasle-irakasleen artean gertatzen dela. Azken hori, ikasleek aitortutakoarekin bat dator, izan ere, datu



kuantitatiboetan ikusi dugun bezala irakaslearekin zein begiralearekin gehien erabiltzen duten hizkuntza euskara da.

Idea hau erabat lotuta dago datu kuantitatiboetan baieztatu den hipotesiarekin: nerabeen testuinguru komunikatiboa zenbat eta formalagoa izan, orduan eta presentzia handiagoa dauka euskarak.

Ikastetxea testuinguru formaleko espazioa izanagatik, baditu testuinguru informalak sortzen diren espazio eta momentuak. Horietan, batez ere, sumatzen da gaztelaniaren presentzia handiagoa. Eta irakasleek diotenaren arabera, testuinguru horietan adinez gero eta gazteagoek erabiltzen dute gaztelania, nahiz eta etxetik euskara dakarten ikasleetan baino areago, etxetik elebidun edo elebakar (gaztelaniadun) diren gazteen artean gertatzen den fenomeno hau.

## **5.7. NERABEEN IRITZIAK GAZTELANIA ETA EUSKARAREKIKO**

---

Azterketa honen arabera, helduek emandako erantzunak ez datoz guztiz bat nerabeek aitortutakoarekin. Irakasleen eta begiraleen ustez, nerabeei euskara ez zaie erakargarria egiten; aldiz, ikasleen aitortza kontuan hartuz, euskara gaztelania baino gehiago maite dute eta gaztelania baino hizkuntza politagoa dela iruditzen zaie. Eta zein hizkuntzatan hitz egitea nahiago duten galdetzean, alde nabarmenez euskara nagusitzen da.

Hala ere, gaztelania esapide batzuk esateko egokiagoa iruditzen zaie, hala nola, “gauza fuerteak” (biraoak) esateko.



## 6. ESKU HARTZEARI BEGIRAKO GOGOETA ETA PROPOSAMENAK

---

Atal honetan aurrera begirako ikerketa eta esku hartzea nondik nora bidera daitekeen aztertzen saiatu gara. Hiru ataletan banatu dugu, horretarako, edukia: esku hartzeko adina zehaztu da; eragite eta esku hartzeko aukera orokor eta ezberdinen planteamendu laburrak aurkeztu dira; eta, SLK-k berak ekintza-ikerketa mailan bideratzeko moduan ikusten dituen proposamenetan sakondu da.

Ikusiko denez, atal honetan hainbat aukera aurkeztu dira eta, seguruena, hortik aukeratu egin beharko dira batzuk; jakina, hemen planteatu gabeko beste aukera batzuk ere izan litezke jorra-gaiak.

Esan bezala, ondorengo lerroetan zehazten dira honakoak:

- Esku hartzeko adina.
- Eragite eta esku hartzeko aukera ezberdinak.
- Balizko ekintza-ikerketa eremuak.

### 6.1. ZEIN ADINEKOEKIN ESKU HARTU?

---

Kale-erabileraren neurketako datuetatik (ikus 2. taula) badakigu 0-14 urte bitartekoen erabilera 15-24 urte bitartekoena baino nabarmen handiagoa dela, bereziki mutiletan. Oraingo azterketa honek erakutsi digu 12-13 urte baino lehenago gauzaten dela, neurri handi batean, euskaratik gaztelaniarako jauzia. Hori dela eta, planteatzen diren esku hartzeak 10-14 urte bitarteko gazteei begirakoak izatea aurreikusten dugu (LH 3. zikloan eta DBH 1. zikloan esku hartzea, hain zuzen).

### 6.2. ZERTAN ERAGIN?

---

Aurrera begira Bergarako euskara zerbitzuak jorra ditzakeen ikerketa eta esku hartzei begira, bi aldagaitan multzokatutako ekimen, programa edo ikerketak sustatzea ikusten dugu egoki: hizkuntza jarrera eta jokabideei dagokion esparrua bata, eta hizkuntza-gaitasunari dagokiona bestea. Esparru bakoitzean bidera litezkeen zenbait ekimen azaltzen dira jarraian:

#### HIZKUNTZA-JARRERA ETA JOKABIDEEN MULTZOA

- *Esku hartze estrategiak landu: guraso, ikastetxe eta begiraleak*

Nerabeekin zuzeneko harremana eta eragina duten subjektuekin hizkuntza jarrera, erabilera eta jokabideen inguruko esku hartze proposamenak egin edo programak sor daitezke. Euren artean eta nerabeekin harremanetan direla: euren hizkuntza erabileraren gaineko kontzientzia (gurasoena, batez ere) landu; nerabeekin nola esku hartu lantzeko jarduerak (euskaratik gaztelania egitera igarotzen direnean, adibidez, zer esan/egin); komunikazio edo sentsibilizazio kanpainak; tailerrak edo gisakoak egin litezke. Bestalde, interesgarria ere izan daiteke koadrila mailako hizkuntza ohituretan sakontzea.



- *Euskal profila/liderrak nola baliatu egitasmo honetan*

Ezaugarri hauek dituzten nerabeak identifikatu eta hizkuntza lidergotzaren gaineko ikerketan edo interbentzioan sakontzea interesgarria izan daiteke.

- *Ikastetxeetan formazio saioak*

Hizkuntza jarrera, portaera eta gisakoen gaineko formazioak susta daitezke.

### HIZKUNTZA-GAITASUNAREN MULTZOA

- *Kode aldaketaren kontzientzia*

Eremu honetan sakondu daiteke nerabeek euren diskurtso ekintzaren gainean dituzten pertzepzioak zein diren ikertuz, eta beraiekin elkarlanean, komunikazio ekintzaren gaineko kontzientzia landu eta eraldaketa gertatzeko aukeretan sakondu liteke.

- *Begarako euskara eta euskalkia aberastu*

Aurreko puntuetan sakonduak zehazteko beste urrats bat emanez (Lekuetan eta testu generoen multzoan jorratuak), Bertako euskalkian aberasteko, ahozko gaitasunean aberasteko esku hartzean sakondu daiteke. Ikerketa honetako bidelagun izan daiteke ahotsak.com egitasmoa, adibidez. Interbentzioan ez ezik, sustapenean ere lan egin daiteke: lehiaketak, ekitaldiak, jaiak... antolatuz, esate baterako.

- *Testuinguru informaletako testu genero eta hizketa-egintzak*

Ikerketa honetan ikusi da gazteek eremu informaletako moldeak ekoiztean gaztelaniaren presentzia handitzen dela, izan etxetik euskalduna edo ez. Ildo horretatik, interesgarria izan daiteke testuinguru informaletako testu genero eta hizketa-egintzetan zentratzea, gazte hizkeretan sakontzea eta euskararen baliabide zein estrategiak nerabeei eskaintzea, baita eremu hau Bergarako euskalkiarekin uztartzea ere. Lanketa hauek guztiak, era berean, interesgarri gerta litezke esanguratsu diren leku hauetan: Gorputz Hezkuntzaren arloa ikastetxean, kirol entrenamenduak oro har, Gazte-lekua eta jolastokia.

- *Ikastetxeetan formazio saioak*

Nerabeen ahozko hizkuntza-gaitasuna sustatzeko formazioa eman edo programaren bat bultzatu daiteke (Tolosako egitasmoan egindako ikerketaren harira, ahozko hizkuntza lantzeko programa, adibidez).

### 6.3. BALIZKO EKINTZA-IKERKETA EREMUAK: IKASGELA, KIROLA ETA GAZTE-LEKUA

Aurkeztu ditugun datuak eta zenbait faktore (eragingo liokeen jende multzoa, erabilera sustatzeko izan dezakeen eragingarritasuna, bideragarritasun ekonomikoa, ditugun gabeziei erantzutea, ekar lezakeen kostu gehigarria...) kontuan hartuta, honako jardun eremuak aurreikusten ditugu SLK-tik esku hartze eta ikerkuntza nagusia bideratzeko: ikasgela, kirola, Gazte-lekua eta ikasgela.





Ekintza-ikerketaren eremu hauetan aurreko atalean aipatutako hizkuntza-gaitasunaren multzoan murgiltzea aurreikusten da, helburu izaki Bergarako gazteen hizkuntza gaitasunean hobekuntzak topatzeko esku hartze esanguratsuak bilatzea. Lau jardun esparru izan daitezke, gure ustez, etorkizuneko ikerketa gaiak:

### **1. IKASGELA: TESTUINGURU FORMALA**

Begarako gazteen ahozko hizkuntza gaitasunak (eremu akademikoan) eta irakasleen esku hartze baliabideak aberasteko aukera emango luke ekintza-ikerketa honek. Ekintza-ikerketa hau proposatzen dugu SLK-k Tolosako laborategiaren harira bideratu duen ikerketatik. Bertatik bildutako esperientzia eta ezagutza baliatuko litzateke ikasgela eremuko ikerketa hau bideratzeko. Bergarako kasuan, Lehen Hezkuntzako azken zikloan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloan murgilduko ginatke. Beraz, berrikuntza horixe izango luke material sorkuntzari eta ikasleen gaitasun mailari dagokionean. Hona ezaugarri eta arrazoi nagusiak:

- **Partaide-multzoa zabala eta ekintza jarraitua**

Begarako nerabe guztiak batzen dituen gune pribilegiatua da ikasgela. Euskara gehien erabiltzen den testuingurua izanagatik ere, ikasle-irakasle arteko hizkuntza harremanak aldatzen ari dela jakin dugu (ikasleek gero eta ohitura gehiago dute ikasgelan bertan gaztelania egiteko; batzuetan, irakasleari gaztelaniaz zuzentzeko ere bai); irakasleek ahozko hizkuntza ikasgelan lantzeko proposamenak beharrezko ikusten dituztela ere bai: euskalkiaren eta jardun akademiko zein ez akademikoaren lanketari dagokionean, batez ere.

- **Irakaslearen jardun didaktikoa hobetzeko aukera eta beharra**

Ahozko hizkuntzaren ikaskuntza-irakaskuntza prozesuaren gainean gogoeta egin, metodologia didaktikoak ezagutu eta praktikan jartzeko behar berri eman dute irakasleek, eta eremu akademikoan trebetasun hau lantzeko aukera bat ere sor liteke.

- **Eragingarritasuna**

Nerabeen komunikazio gaitasunean eragingo litzateke. Batez ere, esparru akademikoari dagokionean, nahiz aukerarik egon litekeen testuinguru informaletan ere sakontzeko. Bestalde, irakasleen formaziorako ere baliabideak izango dira ikerketa hau.

### **2. KIROLA: GORPUTZ HEZKUNTZA ETA ESKOLA-KIROLA**

Ekintza-ikerketa esperimentalagoa da aurkezten dugun hau, izan ere, eremu honetan hizkuntzari lotutako ekintza-ikerketa sakonik ez baitugu ezagutzen, eta testuinguru informalegoi lotutako jardun esparruan murgilduko baikinaten. Hain zuzen ere, testuinguru informaletako testu genero eta hizketa-egintza jakinetan. Zuzenean, beraz, ikerketa honetako ondorio nagusiari helduko litzaike. Ikastetxearen eremuan Gorputz Hezkuntzako irakaslearekin harremanetan, Bergarako elkarteek antolatutako kirolaren esparruan eta eskola-kirolaren eremuan sakontzeko litzateke kirol entrenatzailearekin harremanetan Bergarako nerabeen hizkuntza gaitasunetan, zehazki, testuinguru informaletako jarduna hobetzen. Esparru hauek guztiak zedarrituko dira ikerketaren norabidea zehazteko garaian.

Hona ezaugarri eta arrazoi nagusiak:



- **Partaide-multzoa zabala eta ekintza jarraitua**

Inkestatuen bi herenek parte hartzen du kirolen batean, adin-tarte guztietan nahiko modu homogeneoan banatuta, gainera. Bestalde, hainbat dira kirol batean baino gehiagotan dabiltzanak ere. Kontuan hartu beharreko beste faktore bat da kirol entrenamendua urte osoan zeharreko ekintza jarraitua dela, eta Gorputz Hezkuntza saioen kasuan ere berdin gertatzen da. Ez da gauza bera gertatzen seguruena beste arlo batzuekin. Adibidez, Gazte-lekuan gerta liteke jende bat bolada luze samar batean ez joatea.

- **Kirol entrenamenduetan diharduten nerabeen ezaugarri demo-linguistikoak**

Kultur jardueretako partaideen eta kiroletako partaideen ezaugarri demo-linguistikoak oso antzekoak dira eta lehenean erabilera nabarmen altuagoa da. Bien artean dagoen alde bat da kultura-jardueran neskak direla nagusi eta kirol jardueretan mutilak; izan daiteke, halaber, talde gidariaren ezaugarri linguistikoak eta jarduerak berak propioki dituen ezaugarri diskurtsiboak eragitea edo horretan sakonduta, topa daiteke beste arrazoirik ere. Esparru honetan gehiago sakontzea eta gaur egungo ahulezia nagusi bati erantzutea ekarriko luke honek guztiak (mutilen erabilera apala, besteak beste).

- **Entrenatzaileen jarduna hobetzeko aukera eta beharra**

Kirol entrenatzaileak dira hizkuntzaren aldetik eragite-funtzio txikiena bideratzen duten talde-gidariak. Udalak badu klubekin entrenamenduak euskalduntzeko egitasmo bat eta, horretarako, abian da, besteak beste, entrenatzaileak formatzeko programa bat. Kostu gehigarri oso handirik barik lor liteke egitasmo hori hizkuntzaren ikuspegitik indartu eta osatzea.

Orain arteko programaren zer-nolakoak aztertu eta eragin esparrua (ikastetxeak, kirol jakin batzuk, entrenatzaile jakin batzuk...) zehaztea izango litzateke hurrengo lana.

- **Eragingarritasuna**

Arrue ikerketaren arabera, erabileran eragin handiena duenetako eremuetako bat da eskolaz kanpoko ekintzena. Bestalde, kirola oso lotuta dago emozioekin, pozarekin, haserrearekin... Jardun diskurtsibo horietan dute aztertu ditugun nerabeek ahuleziarik handiena.

- **Lan litezkeen azpi-arloak**

Kirol arloa oso zabala da. Kirol entrenamendu federatua, herriko elkarteek antolatutako kirola, eskola-kirola eta ikastetxeetako Gorputz Hezkuntza arloak ditugu, besteak beste. Merezki luke datozen urteetako ekintza-ikerketak esparrua mugatzea. Gure ustez, aukerarik aproposena da ikastetxeetako Gorputz Hezkuntza saioak, kirol elkarteek antolatuak eta eskola-kirolaren eskaintzak kontuan hartzea, lehenik; izan ere, arestian aipatu bezala, 10-14 urte bitarteko gazteen hizkuntza gaitasunetan eragitea aurreikusi baitugu. Esparru horietan ere erabakiak hartu beharko dira corpusaren zer-nolakoa, partaide kopurua, parte hartze moduak eta esku-hartze maila zehazteko garaian, besteak beste.

### 3. GAZTE-LEKUA

Gazte-lekuari dagokion ekintza-ikerketak ere esperimantalagoa izango da. Aurreko esparruaren antzera, eremu honetako ikerketak gutxi ezagutzen baitugu ahozko hizkuntzaren garapenari eta esku hartzeari dagokionean. Kasu honetan ere, zuzen-zuzenean helduko litzaioke gazteen testuinguru informaletako



jardunaren lanketari, nahiz eta testuinguru erdi gidatua izan (hezitzaile edo talde gidariren batek bideratua, alegia): testu genero eta hizketa-egintza jakinen esku hartzeari, hain zuzen. Bergarako Gazte-lekuko begiraleen laguntzarekin bideratuko litzateke honako proposamena.

Gaur egungo Gazte-lekuko begiraleengandik jasotako informazioaren arabera (egungo errealitateak ez du laguntzen hizkuntza dinamizazioa bideratzen; egoerak aldatu egin beharko luke gisa horretako lanketak egiteko) eta diagnosi faserako aurreikusten ziren jarduerak Gazte-lekuan bideratzeko izan diren zailtasunak kontuan hartuta, ekintza-ikerketak hau bideratzeko baldintza aproposak eskuratu beharko liratekeela uste dugu. Hortik aurrera, bideratuko lirateke ikerketari dagozkion aukera zehatzak.

Esanak esan, hona proposamenaren ezaugarri eta arrazoi nagusiak:

- **Partaide-multzoa**

Jasotako datuen arabera partaideen %58k parte hartzen du. Hala ere, ematen du kopuru hori puztuta egon litekeela, benetan Gaztetxera joaten diren batzuk ere Gazte-lekura joaten direla jarri dutelako. Gazte-lekuko begiraleek esandakoaren arabera, 12-13 urtekoak dira batez ere Gazte-lekura joaten direnak.

- **Partaideen ezaugarri demo-linguistikoak**

Gazte-lekura joaten den populazioaren ezaugarri demo-linguistikoak, nerabe populazio osoak dituenaren antzeko samarrak dira, oro har, nahiz eta Gazte-lekura joaten direnen artean, zertxobait gehiago diren, lehen hizkuntzatzat “beste bat” dutenak. Hala, beraz, euskararen aldetik ezaugarri demo-linguistiko kaxkarragoak dituzte kultur jardueretan edo kirolean dabiltzanek baino.

Era berean, interesgarria litzateke ikustea ezaugarri demo-linguistiko “kaxkarragoak” dituzten gazteekin zein izan daitezkeen lanketa aproposenak; baita euren bilakaera komunikatiboa zein mailatakoa gertatzen den ikustea ere.

- **Proiektuan euskara zehar lerro gisa txertatuta, eta monitore prestatu eta kontzientziadunak**

Gazte-leku proiektuan txertatuta dauden zehar-lerroetako bat da euskararena. Bestalde, proiektua bera euskara elkarte batek bideratzen du eta bertan parte hartzen duten monitoreek egin izan dituzte hizkuntza dinamizaziorako formazio-saioak eta badute euskararekiko sentiberatasun bat. Oinarri garrantzitsu bat da. Kostu gehigarri oso handirik barik lor liteke, akaso, dinamika berri bat sortzea.

- **Dinamika aldatu eta hobetu beharra**

Datuek erakusten digute Gazte-lekuak ez duela lortzen nahi besteko emaitzarik euskara sustatzeari dagokionez. Gazte-lekuko monitoreekin egindako elkarrizketetan jasotakoaren arabera, zenbait arrazoigatik, (diziplina arazoak, une batzuetako masifikazioa...) zaila gertatzen zaie hizkuntza dinamizazioko lan egoki bat egitea. Dinamika konstruktibo eta eragingarriago bat nola lortu aztertu beharko litzateke, eta hortik aurrera aztertu nola bidera ote litekeen ikerketa.

- **Eragingarritasuna**

Testu genero informalak, emozioen hizkuntza... lantzeko oso arlo aproposa irizten diogu.



#### 4. JOLASTOKIA

Eskola eta kalearen erdi bideko eremu bat da jolastokia. Eskolak nolabaiteko interbentzioa baduena, baina mundu informalekoa neurri handian. Alde horretatik, esku hartzerako gune interesgarria izan liteke.

Edozein kasutan, eremu heterogeneoa da eta baditu zailtasun batzuk ekintza-ikerketara gauzatzeari begira. Ildo horretatik, nerabeen hizkuntza gaitasunean zentratutako ekintza-ikerketara bideratzeko aukerak ez ditugu, une honetan, horren garbi ikusten.

Dena dela, hona eremu honi lotuta egindako gogoetak: gaur egun ikastetxe batzuetan DBH osoko ikasleak irten egiten dira jolastokitik eta beste batzuetan ere bai DBH 3tik gora. Bestalde, jolas-garaian harreman libreak eraikitzen dira non helduaren edo talde-gidariaren interbentzioak ez diren izaten horren ohikoak. Egia da, hala ere, ikastetxeren batean atseden unea baliatzen dutela ikastetxeko ikasleen Euskara batzordeek bilerak egin eta zenbait ekimen bideratzeko. Puntu horretatik begiratuta, agian, bila liteke esku hartzeko aukeraren bat.

Bestalde, LHko 3. zikloko ikasleengan ere eragin nahi denez, honako galdera hauek sortu zaizkigu eremu honi dagokionean: nola? zein eragileren bitartez? Bide on bat izan liteke, akaso, DBH edo Batxilergoko ikasleak LHkoen eragile bihurtzea. Lorgarri da? Zein kosturekin?

Edonola ere, aurreko atalean azaldu dugun moduan, aipatutako eremuok ikuspegi zabalez lantzea litzateke egokiena eta aipatu ditugun eremuetara mugatu barik, inguruan (gurasoetan, herri mailan, ikastetxean...) ere eragiteko aukerak izatea.



## 7. ERANSKINAK

---

### DATU KUANTITATIBOAK

- Galdetegiak
- Datu ustiaketaren emaitza taulak (excel fitxategia erantsiko da).

### DATU KUALITATIBOAK

- Galdetegi-gidoiak.
- Gazte-lekurako prestatutako jarduerak.
- Elkarrizketetako transkripzioak.